

Euskadiko udaletan
honako gai hauetan
erabakiak hartzeko

GIDA PRAKTIKOA (IV):

**UDAL FINANTZAKETA,
AURREKONTUAK
ETA DIRU-LAGUNTZAK**

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Aurkezpena

2026ko apirilaren 7an, 10 urte bete ziren Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea (ETEL) onartu zenetik, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru mailen barne-instituzionalizazioko prozesua amaitu zen.

Hamargarren urteurrena dela eta, EUDELeK egokitzen jo du material multzo bat egitea eta argitaratzea, oinarritzko giden formatuarekin, ETELen edukiak hedatzen laguntzeko, aldezturik ezagutu behar diren eta gure toki-erakundeen tokiko politika publikoei buruzko erabakiak eta akordioak baldintzatzen dituzten egiturazko gaiei dagokienez.

Gida honen (IV) helburua da eskumenen, zerbitzuen kudeaketaren, kontratazioaren eta tokiko enplegu publikoaren arloan beharrezkoak diren oinarritzko ezagutzak ematea, gure toki-erakundeen tokiko politika publikoei buruzko erabakiak hartzea eta erabakiak hartzea errazteko.

Lehengo atalean, Ekonomia Itunari lotutako udal-finantzaketa berezia jorratzen da. Udal diru sarreraren aipamen orokor batetik abiatuta, tributuak (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak), prezio publikoak eta tributu izaera ez duten ondare prestazio publikoak azterzen dira, baita horiek ezartzea eta antolatzea ere. Jarraian, udal-zerga bakoitzaren funtsezko elementuen deskribapena egiten da (OHZ, JEZ, IVTM, EIOZ eta HLBGZ). Eta, azkenik, udalek tributu itunduak banatzeko ereduak duten partaidetza eta ETELen ezarritako udal-finantzaketa bermatzeko sistema instituzionala aztertzen dira.

Bigarren atala udal aurrekontuei buruzkoa da. Honako hauek dira gairik aipagarrienak: araudia, edukia, egitura, aurrekontu egonkortasunaren, finantza jasangarritasunaren eta gastu arauaren printzipioak, plan ekonomiko finantzarioak, aurrekontua onartzeko prozedura eta aurrekontu aldaketak, sarrerak eta gastuak gauzatzeko faseak eta organo eskudunak, aurrekontuaren likidazioa eta kontu orokorra.

Gida honen hirugarren eta azken atala udalek ematen dituzten dirulaguntzei buruzkoa da. Bertan, besteak beste, honako gai hauek aztertzen dira: aplikatu beharreko araudia, diru-laguntzaren kontzeptua eta legetik kanpo geratzen diren kasuak, plan estrategikoaren nahitaezotasuna, azpikontratazioa, diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak, horien justifikazioa eta itzulketa, tokiko organo eskudunak eta diru-laguntzak emateko prozedurak.

Gida honekin batera, EUDELeK beste hiru gida egin ditu:

Antolaketaren arloan Euskadiko udaletan erabakiak hartzeko oinarritzko gida (I), 2023an argitaratua eta 2026an berrikusia eta eguneratua.

Euskadiko udaletan udal-arauei, erakunde-osotasunari, gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta funtzionamendu elektronikoari (digitala) buruzko erabakiak hartzeko oinarritzko gida (II).

Euskadiko udaletan eskumenei, zerbitzuen kudeaketari, kontratazioari eta tokiko enplegu publikoari buruzko erabakiak hartzeko oinarritzko gida (III).

EUDEL, 2026ko MAIATZA

Aurkibidea

1.- UDAL FINANTZAKETA 6

- 1.1.- EKONOMIA ITUNA ETA TOKI OGASUNAK
- 1.2.- TOKI DIRU SARRERAK
- 1.3.- TOKI ZERGAK
- 1.4.- EZARPENA ETA ANTOLAMENDUA
- 1.5.- BERRIKUSPENA ETA ERREKURTSOAK
- 1.6.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA
- 1.7.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA
- 1.8.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA
- 1.9.- EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGA
- 1.10.- HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA
- 1.11.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA
- 1.12.- KONTRIBUZIO BEREZIAK
- 1.13.- TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA TRIBUTUAK EZ DIREN ONDAREKO PRESTAZIO PUBLIKOAK
- 1.14.- TOKI ERAKUNDEEN PARTAIDETZA TRIBUTU ITUNDUETAN ETA ITUNDUTA EZ DAUDENETAN
- 1.15.- TRIBUTU ITUNDUAK BANATZEKO EREDUA
- 1.16.- TOKI FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAK
- 1.17.- TOKI FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAK BANATZEKO IRIZPIDEAK
- 1.19.- BALDINTZAPEKO TOKI-FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAK
- 1.20.- UDAL FINANTZAKETAREN ARLOKO BERME SISTEMA INSTITUZIONALA
- 1.19.- HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA
- 1.21.- EUSKADIKO ZERGA KOORDINAZIOARAKO ORGANOA
- 1.22.- FINANTZEN LURRALDE KONTSEILUAK

2.- UDAL AURREKONTUA 37

- 2.1.- UDAL AURREKONTUA. ARAUDIA ETA EDUKIA
- 2.2.- AURREKONTU EGITURA: DIRU SARRERAK
- 2.3.- AURREKONTU EGITURA: GASTUAK
- 2.4. AURREKONTU EGONKORTASUNAREN, FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN
ETA GASTU ARAUAREN PRINTZIBIOAK
- 2.5.- TOKIKO ZORPETZEAREN ARAUBIDEA
- 2.6.- PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOAK
- 2.7.- UDAL AURREKONTUA ONARTZEKO PROZEDURA
- 2.8.- UDAL AURREKONTUA: IZAERA MUGATZAILEA ETA LOTESLEA. LOTURA JURIDIKOAREN MAILA
- 2.9.- AURREKONTU ALDAKETAK
- 2.10.- SARRERAK ETA GASTUAK GAUZATZEKO FASEAK ETA ORGANO ESKUDUNAK
- 2.11. UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA
- 2.12.- LIKIDAZIOA DIRUZAINZAKO GERAKIN NEGATIBOAREKIN
- 2.13.- KONTU OROKORRA

3.- DIRU-LAGUNTZAK 48

- 3.1.- ERREGULAZIOA
- 3.2.- DIRU-LAGUNTZAREN KONTZEPTUA ETA DLOren APLIKAZIO EREMUTIK KANPO UTZITAKO KASUAK
- 3.3.- DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK
- 3.4. TOKIKO ORGANO ESKUDUNAK
- 3.5.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK
- 3.6.- ONURADUNAK
- 3.7.- DIRU-LAGUNTZEN DATU BASE NAZIONALA
- 3.8.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OHIKO PROZEDURA: NORGEHIAGOKA ARAUBIDEA
- 3.9.- DIRU-LAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA
- 3.10 - DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK AZPIKONTRATATZEA
- 3.11.- DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA
- 3.12. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK
- 3.13.- AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA
- 3.14.- DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA
- 3.15.- DIRU-LAGUNTZEN ARLOKO ARAU HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK

Siglak

AGE:

Auzitegi Gorenaren Epaia

APAPEL:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

BDNS:

Diru-laguntzen Estatuko Datu Basea

BE:

Baliabide Eskuragarriak

BEZ:

Balio Erantsiaren Gaineko Zerga

DLO:

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra, 38/2003, azaroaren 17koa

EAE:

Euskadiko Autonomia Erkidegoa

EBOH:

Ezaugarri Bereziak dituzten Ondasun Higiezinak

EIL:

Ekonomia Itunaren Legea, 12/2002, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena

EIOZ:

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

ETEE:

Euskadiko Turismo Enpresen eta Jarudueren Erregistroa

ETEL:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa Legea, 2/2016, apirilaren 7koa

ETZ:

Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga

EUSTAT

Instituto Vasco de Estadística

HDEK:

Herri Dirubideen Euskal Kontseilua

HKEE:

Herri Kontuen Euskal Epaitegia

HLBGZ:

Hiri-Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga

JEZ:

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

KAE:

Konstituzio Auzitegiaren Epaia

LHL:

Lurralde Historikoen Legea, 27/1983, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoen Foru Erakundeen arteko harremanei buruzkoa

OHZ:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

OZFP:

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana (Araba)

SEC:

Kontu Nazionalen eta Erregionalen Sistema Europarra

SPKL:

Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 9/2017, azaroaren 8koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dituenak.

TAOL:

Toki Araubidearen Oinarrien Legea, 7/85 apirilaren 2koa

TEFFF:

Toki Erakundeen Finantzaketarako Foru Funtza (Araba)

TMIZ:

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga

TIEOPP:

Tributu Izaera Ez duen Ondare Prestazio Publikoa

TOFA:

Toki Ogasunei buruzko Foru Araua

TOLTB:

2/2004, Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena.

UFFF:

Udalak Finantzatzeko Foru Funtza (Gipuzkoa)

ZFAO:

Zergei buruzko Foru Arau Orokorra

1.- UDAL FINANTZAKETA¹

1.1.- EKONOMIA ITUNA ETA TOKI OGASUNAK

Ekonomia Itunaren Legeak 39, 40, 41, 42. eta 48. 5 artikuluetan arautzen ditu toki-ogasunei dagozkien gaiak eta nahitaezko zergak arautzeko eskumena foru-erakundeei esleitzen die (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga).

OHZ (39. artikulua) Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek emandako arauen bidez arautuko da, eta dagokion lurralde historikoan dauden landa- eta hiri-ondasunak zergapetzen ditu.

JEZ (40. artikulua) Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek emandako arauen bidez arautuko da. Lurralde Historikoetako erakunde eskudunei dagokie beren lurraldean egindako jardueren ondoriozko JEZ ordainaraztea, honako arau hauen arabera:

- a) Gutxieneko udal kuotak edo aldatutako kuotak badira, kuota horiek Lurralde Historikoko udalerrien mesederako sortzen direnean.
- b) Lurraldeko kuotak badira, jarduera dagokion Lurralde Historikoan egiten denean.
- c) Lurralde batean baino gehiagotan jarduteko ahalmena ematen duten kuotak badira, subjektu pasiboak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza EAEn duenean, dagokionaren arabera. Kuota hori dagokion lurralde erkide edo foru-lurraldeko Administrazioari ordaintzeak ahalmena ematen du bi lurraldeetan jarduteko.

TMIZ (41. artikulua) Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek emandako arauen bidez arautuko da, zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea lurralde horretako udalerriri bati dagokionean.

Beste toki-tributu batzuei dagokienez, haiek ezartzeko ahalmena aitortzen da, baina honako irizpide hauei jarraituz:

- a) Araubide erkideko tokiko tributua-sistemaren egitura orokorrari eta horretatik eratortzen diren printzipioei kontuan hartzea, 3. artikuluko harmonizazio-arauak errespetatuz.
- b) Araubide erkidekoak ez diren zeharkako figurarik ez ezartzea, baldin eta haien errendimendua EAetik kanpora lekualdatu edo eragin badaiteke.

Bestalde, EIL (48. artikulua. Bosgarrena) ezartzen du Estatuak unean-unean toki-ogasunen arloan betetzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunei dagozkiela. Baina horrek ez du esan nahi araubide erkidekoak baino autonomia-maila txikiagoa duenik. Finantza-tutoretza hori, baliabide ekonomikoei dagokienez, LHL Lurralde Historikoen Legeak zehaztu zuen (bigarren xedapen gehigarria). Berme gisa hauxe xedatu zuen: udalerriri guztietarako baliabideen maila ez da inola ere araubide erkideko legeria aplikatzeagatik lurraldeari legokioketena baino txikiagoa izango. Hori guztia, foru-aldundiek egoki iritzitako irizpideekin zenbateko horiek banatzeko duten ahalmenari kalterik egin gabe.

¹ "Udal finantzaketa" izeneko atal hau egiteko, honako argitalpen hauek hartu dira erreferentziatzat: "Euskadiko Toki Ogasunen Eskuliburua" (ISBN: 978-84-777-599-7) eta "Euskadiko Toki Ogasunen Eskuliburuaren Eranskina" (ISBN: 978-84-777-643-7). Argitalpen horiek IVApekin argitaratu ditu, eta egilea Iñaki Galdeano Larizgoitia da.

1.2.- TOKI DIRU SARRERAK

Lurralde bakoitzeko² toki-ogasunei buruzko foru-araudiak toki ogasunak osatzen dituzten baliabide hauek zerrendatzen ditu:

- a) Bere ondaretik eta Zuzenbide Pribatuko gainerako ondasunetatik datozen diru-sarrerak. Ezin dira gastu arruntak finantzatzeko erabili, salbu eta soberako lurzati eraikiezinak edo efektu ez-erabilgarriak badira.
- b) Zerga, tasa eta kontribuzio berezietan sailkatutako tributu propioak.
- c) Zerga itunduetako eta itunduta ez daudenetan eta gainerako diru-sarrera publikoak dituen partaidetzak.
- d) Diru-laguntzak.
- e) Prezio publikoagatik asotakoak.
- f) Kreditu-eragiketen emaitza.
- g) Bere eskumenen esparruko isun eta zehapenen emaitzak.
- h) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak. Horien artean sartzen dira tributu izaera ez duten ondare-prestazio publikoak, kontraprestazio ekonomiko koaktibo gisa definituak, udal-zerbitzuak edo obrak ustiatzeagatik zuzenbide pribatuko erakundeen bidez edo zeharkako kudeaketaren bidez jasotzen direnak (emakida-araubidea, ekonomia mistoko sozietateak, enpresa-erakunde publikoak, kapital publiko osoko sozietateak eta zuzenbide pribatuko beste formula batzuk).

Gainerako toki-erakundeen baliabideei dagokienez, bai udalaz gaindiko lurralde-eremuak, bai udalerriaz beheragokoak, eta baita toki-partzuergoei dagokienez ere, toki-ogasunen foru-araudian zerrendatuta eta araututa daude. Dagoen aldea da zergak udalen baliabide gisa aurreikusten direla, eta ez gainerako toki-erakundeenak. Hala ere, Arabako kontzejuen kasuan, kontuan hartu beharko da Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko uztailaren 10eko 17/2026 Foru Arauaren 53. artikulutik 56. artikulura xedatutakoa.

1.3.- UDAL ZERGAK

Zerga propioak hiru kategoriatan banatzen dira: zergak, tasak eta kontribuzio bereziak.

Nahitaezko zergak dira, eta horiek arautzeko osoko bilkuraren erabakirik hartzen ez bada, zerga horiek arautzen dituzten foru-arauetan jasotzen diren gutxieneko zerga-tasak eta tarifa-koadroa aplikatuko dira:

- a) Ondasun higiezinaren gaineko zerga
- b) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga
- c) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga
- d) Egonaldi turistikoen gaineko zerga

² 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 2.1 artikulua (1/2021 Foru Dekretu Arauemailea, irailaren 29koa, Arabako Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren testuategina onartzen duena). 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Toki Ogasunei buruzkoa. Eta 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoa.

Ordenantza fiskalak ezarri eta onartzeko udal akordioa behar duten hautazko zergak honako hauek dira:

- a) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga
- b) Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga

Tasak hautazko tributuak dira udaletarako eta honako hauengatik eska ditzake:

- a) Udalaren jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.
- b) Udal eskumeneko zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea, baldin eta subjektu pasiboek bereziki badagozkie, eragiten badiete edo mesede egiten badiete.

Zerbitzuak emateagatik tasen kasuan, baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- a) Jarduera edo zerbitzua ez izatea administratuek borondatez eskatzekoa edo jasotzekoa (adibidez: hondakinen bilketa, ur-hornidura).
- b) Sektore pribatuak zerbitzu edo jarduera horiek ez ematea edo egitea (egiteko monopolioa nahikoa da).

Kontribuzio bereziak hautazko tributuak dira, udalak obrak egiteagatik edo udal zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik eska ditzakeenak, baldin eta subjektu pasiboek mozkina edo ondasunen balio-gehikuntza sortzen badiete.

1.4.- EZARPENA ETA ANTOLAMENDUA

Nahitaezko zergek (OHZ, JEZ, TMIZ eta ETZ) ez dute zergapetze-akordiorik behar ordainarazteko. Hala ere, beharrezkoa izango da ordenazio-akordioa eta dagokion ordenantza fiskala onartzea, baldin eta udalak toki ogasunen foru arauak aitortzen dizkieten ahalmenak erabili nahi baditu. Bestela, gutxieneko zerga-tasak eta tarifa-taula aplikatuko dira OHZ, JEZ eta TMIZren kasuan, eta gehieneko karga-tasak ETZren kasuan.

Hautazko zergak (EIOZ eta HLBGZ) eta gainerako tributuak (tasak eta kontribuzio bereziak) ordainarazteko, udalak aldi berean hartu behar ditu dagozkion ezarpen eta antolamendu-akordioak, eta dagokion ordenantza onartu behar du.

Ordenantzak onartzeko prozedura desberdina da haien izaerari dagokionez, eta, ondorio horietarako, ordenantza fiskalak eta ez-fiskalak bereizi behar dira.

a) Ordenantza fiskalak

Ordenantza fiskalak toki-erakundeek tributu-arloan duten erregelamendu-ahalaren adierazpen bat dira, toki-autonomiaren printzipioaren ondorioz, zeinak, aldi berean, justifikatzen baitu lege-erreserbaren printzipioaren malgutasun handiagoa tokiko zerga-esparruan. Ordenantza fiskalak, gainera, tributu-ordenamenduaren iturriak dira.

Edukiari dagokionez, ordenantza fiskalek honako hauek jasoko dituzte, gutxienez:

1. Zergapeko egitea; nork ordaindu behar duen; erantzuleak zeintzuk diren; dauden salbuespen, murrizketak eta hobariak; zerga-oinarri eta likidagarria zein den; kargaren tasa edo ehunekoa edo zerga-kuota; zergaldia edo zein epeari dagokion; eta, azkenik, sortzapena edo noiz sortzen den ordaintzeko beharra.

2. Aitorpen eta diru-sarrera egiteko araubideak.
3. Onartzeko eta aplikatzen hasteko egunak

Ordenantza fiskalak onartzeko prozedura honako hau da:

1. Behin-behineko erabakia
2. Jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez gutxienez, udaletxeko iragarki-taulan, eta erabakia lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratzea. Era berean, hamar mila zuzenbidezko biztanletik gorako toki-erakundeek lurraldean hedapen handiena duen egunkarietako batean argitaratu beharko dituzte. Epe horren barruan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak³ aurkeztu ahal izango dituzte.

Bizkaiko Foru Arauak honako hau gehitzen du: salbuespenezko edo premiazko arrazoiak direla-eta, jendaurrean jartzeko epea murriztu behar bada, eta, betiere, aipatutako behin-behineko erabakiak edo ordenantza fiskalen hasierako onarpenak eta aldaketak interesatuentzat onuragarriagoak badira, ordenantza fiskala onartzeko eskumena duen organoak epe hori murriztea erabaki ahal izango du, baina, nolanahi ere, ezin izango da bost egunetik beherakoa izan.

3. Behin betiko erabakia

Jendaurreko aldia amaitutakoan, beharrezko liratekeen behin betiko erabakiak hartu beharko dira, aurkeztutako erreklamazioak ebatziz eta ordenantzaren behin betiko idazketa, indargabetzea edo behin-behineko erabakiari dagozkion aldaketak onartuz. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da, osoko bilkuraren erabakirik behar izan gabe.

Nolanahi ere, behin betiko erabakiak, kategoria horretara automatikoki igotako behin-behinekoak barne, eta ordenantzen edo horien aldaketen testu osoa, lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira, eta argitalpen hori egiten denean⁴ jarriko dira indarrean.

Auzitegi Gorenak ezarritako lege-doktrinaren arabera⁵, APAPELen 133. artikulua ezin zaio aplikatu ordenantza fiskalak onartzeko prozedurari, eta, beraz, aurretiazko kontsulta publikoa ez da egin behar.

³ Arabako TOFAren 20. artikulua, Bizkaiko TOFAren 17. artikulua eta Gipuzkoako TOFAren 17. artikulua. Honako hauek hartuko dira interesduntzat:

- a) Zuzeneko interesa dutenak edo akordio horien eraginpean daudenak.
- b) Elkargo ofizialek, ganbera ofizialek, elkarteek eta interes profesionalak, ekonomikoak edo auzokoak zaintzeko legez eraturako gainerako erakundeek, baldin eta berezkoak dituztenen alde jarduten badute.

⁴ TAOLen 111. artikulua: "Ez zaie aplikatuko lege honen 70.2 artikuluan eta 65.2 artikuluan aurreikusitakoa".

⁵ AGE, 2023ko urtarilaren 31koa. APAPELen lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatu behar da, ordenantza fiskalen prestaketa gaiaren arabeko lege berezi batek arautzen baitu (TOLTB).

b) Ordenantza ez-fiskalak

Foru-araudiaren arabera, prezio publikoek ez dute zertan ordenantza orokorrik behar horiek ezarri eta finkatzeko⁶. Hala ere, tributu-izaera ez duenez eta ordenantza bidez arautzea erabakitzen bada, ordenantza horrek toki-araubidearen oinarritzko legerian aurreikusitako prozedura orokorrari jarraitu beharko dio⁷.

TIEOPPe dagokion ordenantzaren onarpena behar badute, horretarako ordenantzak onartzeko prozedura orokorra jarraitu beharko da, bere izaera ez-tributarioa dela eta.. Ondorioz, ordenantzari hasierako onarpena eman aurretik, APAPELen 133.1. artikulua kontsulta publikoko izapidea bideratu beharko da, lege aurreikusitako arrazoiengatik izapide hori bazter daitekeenean izan ezik⁸.

Ordenantza ez-fiskalak onartzeko prozedurak bi desberdintasun garrantzitsu ditu ordenantza fiskalei aplikagarri zaienarekiko:

- 1.-Indarrean jartzea: fiskalak ez direnen kasuan, 15 egun baliodunekoa izango da, behin betiko onartzen direnetik.
- 2.-Kontsulta publikoa: ordenantza ez-fiskalen kasuan, proiektua egin aurretik kontsulta publikoa egin beharra dago.

Onarpen-prozedurak, era berean, berezitasun bat dauka: legeria autonomikoak tarifa jakin batzuk onartzeari dagokionez esku-hartzeren bat aurreikusi duen kasuetan, nahitaezko txostena eskatu beharko zaio dagokion administrazioari, baina ez loteslea⁹.

1.5.- BERRIKUSPENA ETA ERREKURTSOAK

Tributuak aplikatzeko eta tributu-zehapenak ezartzeko egintzak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak kudeatzeko emandako egintzak administrazio-bidean berrikusi ahal izango dira, berrikusteko prozedura berezien, berraztertze errekursoaren eta erreklamazio ekonomiko-administratiboen bidez.

Berrikuspen-prozedura bereziak lurralde bakoitzeko zergei buruzko foru-araudi orokorrean araututakoak dira: erabat deusezak diren egintzak berrikustea, egintza deuseztagarriak kaltegarritzat jotzea eta administrazioarekiko auzibidean aurkaratzea, ezeztatzea, errakuntza materialak, egitekoak edo aritmetikoak zuzentzea eta bidegabeko diru-sarrerak itzultzea.

⁶ Foru-erregulazioa desberdina da lurralde bakoitzean. Nolanahi ere, ezarpena osoko bilkurari dagokio, edo, hala badagokio, tokiko gobernu-batzarrari eskuordetzan emanda. Bizkaia berariaz jasotzen du hori erakunde autonomoek edo tokiko partzuergoek finkatu ahal izango dutela.

⁷ TAOLen 49. artikulua.

⁸ AGEk, 2023ko azaroaren 16koa, aintzat hartu zuen interes publiko nabarmena dagoela uraren ziklo integralari lotutako zerbitzuen erregulartasunari eta prestazioari dagokienez, eta aurretiatzko kontsultaren izapideak gehiegi atzeratuko lukeela udal jardueraren funtzionamendu egokia bermatzeko garrantzi handiko araudia indarrean jartzea. Beraz, justifikatzen da aurretiatzko kontsulta publikotik kanpo uztea (APAPELen 133.4 artikulua lehen paragrafoa).

⁹ 35/2020 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duena.

Berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio aurkaratutako egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza esanbidez jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu eta hurrengo egunetik hiru hilabete igaro ondoren, epe barruan ebazpenik eman ez bada, ezetsizat joko da. Ezin da berraztertze-errekurtsorik jarri ordenantzen aurka, fiskalak izan edo ez. Beraz, zeharkako aurkaratzearen kasuan izan ezik, hala nola txosten tekniko ekonomikoa ez aurkeztea edo nahikoa ez izatea, zuzenean jo beharko da administrazioarekiko auzien bidera.

Zerga-izaerako egintzen aurkako erreklamazio ekonomiko-administratiboa honako kasu hauetan egin daiteke:

- a) Hiru hiriburuen kasuan, horretarako sortutako organoaren aurrean.
- b) Araban, toki-erakundeak bere jurisdikzioari heltzea erabaki ondoren, Erakunde Juridiko Administratiboaren aurrean eta Gipuzkoan, kasu guztietarako, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean. Interesdunek erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango dute, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzien bidearen aurretik, berraztertze-errekurtsoaren berariazko edo isilbidezko ebazpenaren aurka, hilabeteko epean. Gipuzkoan, zerga-ordenantza baten aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteko aukera badago, hilabeteko epean, lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik hasita.

1.6.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGA

OHZ kudeaketa partekatuko zerga da, eta, beraz, foru-aldundiei dagokie katastro-kudeaketa, eta udalei, berriz, zerga-kudeaketa.

Bai Bizkaiak bai Gipuzkoak, estatuko ereduari jarraituz, higiezin katastroa arautzen duten foru-arau espezifikoak onartzea erabaki dute. Arabak, berriz, OHZ arautzen duen foru-arauan bertan egiten du. Hiru lurraldeetan, katastro-erregulazioa dagozkion foru-dekretuen bidez garatzen da, eta horien artean katastro-balorazioarako arauak buruzkoak nabarmentzen dira.

Haren egitate zergagarria hiri- eta landa-ondasun higiezin gaineko eskubide jakin batzuen titulartasuna da, eta baita ezaugarri bereziko ondasun higiezin gainekoa ere (EBOH).

Hiri- eta landa- higiezinei dagokienez, kontuan hartu beharko da lurralde bakoitzeko foru-erregulazioa, lurzorua eta izaera horretako eraikuntzak bereizten dituen, bai eta hirigintza-legeria ere. EBOHeK, bestalde, erabilera espezializatuko multzo konplexu bat osatzen dute, lurzoruak, eraikinek, instalazioek eta urbanizazio-obrek osatua, eta, izaera unitarioa dutenez, katastro-ondorioetarako ondasun higiezin bakartzat hartzen da (adibidez: portuak, aireportuak, petrolio-findegia, parke eolikoak, zentral hidroelektrikoak, eta abar).

Eskubide zehatz eta mailakatu horiek, honako hauek baino ez dira (zerrendako kontzeptu bakoitzak ez du ondorengoa baldintzatzen):

- a) Higiezin edo horiei atxikitako zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.
- b) Azaleraren gaineko eskubide erreala.
- c) Usufuktu-eskubide erreala.
- d) Jabetza-eskubidea.

Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-araudiak zergapetu gabeko kasuak eta salbuespenak bereizten ditu. Arabako foru-arauak, bestalde, salbuespen-kasuak baino ez ditu jasotzen. Hala ere, kalifikazioa bata zein bestea izan, hiru lurraldeek, desberdintasun batzuk izan ezik, antzeko kasuak barne hartzen dituzte.

Subjektu pasiboa da kasu bakoitzean zergaren zergapeko egitatea osatzen duen eskubidearen titularra, zergadun gisa edo ordezkari gisa.

OHZren zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioa da (lurzoruaren balioa gehi eraikuntzen balioa) eta hori kalkulatzeko, merkatuko balioa hartuko da erreferentziazat.

Zerga honen kuota osoa zerga-oinarriari (katastro-balioa) karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da. Kuota likidoa lortzeko, kuota osoa murriztuko da foru-araudian aurreikusitako hobarien zenbatekoan.

Hona hemen karga-tasak:

a) Araba.

- 1.-Hiri-ondasunak: gutxieneko tasa ehuneko 0,3 da eta gehieneko tasa ehuneko 1,5.
- 2.-Landa-ondasunak: gutxieneko tasa ehuneko 0,3 da, eta gehieneko tasa ehuneko 1,1.
- 3.-EBOH: gutxieneko tasa ehuneko 0,4 da eta gehieneko tasa ehuneko 1,3; ehuneko 0,6 osagarria da. Udalek ondasun-talde bakoitzerako tasa bereziak ezarri ahal izango dituzte.

b) Bizkaia.

- 1.-Hiri-ondasunak. gutxieneko tasa ehuneko 0,02 da eta gehieneko tasa ehuneko 0,60. Hala ere, udalek hiri-erabilerengatik bereizitako karga-tasak ezarri ahal izango dituzte, honako muga hauen barruan:
 - Ehuneko 3,00 arte industria-erabileretarako (I).
 - Ehuneko 2,00 arte merkataritza-erabileretarako (C).
 - Ehuneko 1,00 arte, tasa bakarrarekin, gainerako erabileretarako, bizitegi-erabileretarako (V) eta bestelako erabileretarako (Y) izan ezik.
- 2.-Landa-ondasunak: gutxieneko tasa: ehuneko 0,05 eta gehieneko ehuneko 0,50.
- 3.-EBOH: gutxieneko tasa eta osagarria ehuneko 0,20 dira, eta gehieneko tasa ehuneko 0,80. Muga horien barruan, udalek ondasun-talde eta azpitalde bakoitzeko tasa bereziak ezarri ahal izango dituzte.

c) Gipuzkoa

- 1.-Hiri-ondasunak: ehuneko 0,04 da gutxieneko tasa, eta udalek bi karga-tasa ezarri ahal izango dituzte, gehituta:
 - Bat, orokorra, ehuneko 0,4ko mugaraino.
 - Beste bat, ehuneko 0,6ko mugaraino, industriako edo hirugarren sektoreko lurzorian kokatutako ondasun higiezinarentarako dagozkien balorazio-txostenen arabera, erabilera nagusia industrial edo hirugarren sektorekoa ez duten eraikinetan kokatutako finketarako izan ezik.

2.-Landa-ondasunak: gutxieneko tasa ehuneko 0,3 da eta gehieneko tasa ehuneko 1,1.

3.-EBOH: gutxieneko tasa ehuneko 0.04 da eta gehieneko tasa ehuneko 0,7.

Arabako eta Bizkaiko OHZren araudiak ahalbidetzen du udalek, hiri-ondasun higiezinatarako, katastro-balio handieneko ondasunetarako tasa bereziak ezarri ahal izatea, eraikuntzak baloratzeko katastro-araudian ezarritako erabilerak kontuan hartuta. Mota berezi horrek muga bat du: erabilera bakoitzerako katastro-balio handiena duten udal mugarteko hiri-ondasun higiezinaren ehuneko 10 baino gehiagori ezin izango zaie aplikatu.

Hiru lurraldeetan sartu da errekararen figura, ez hutsik dauden etxebizitzaren gainekoa, baizik eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen bizileku ez diren (ohiko) bizitegi-higiezinaren gainekoa, errentamenduagatik edo erabilera-lagapenagatik.

Bizitegi-erabilerako higiezin bat (ohiko) bizilekua dela ulertuko da, baldin eta, zergaren sortzapen-datan, etxebizitza dagoen udalerriko biztanleen erroldan jasota badago okupatzaileen ohiko bizilekua dela.

Udaletarako hautazko errekarua da, eta haren zenbatekoa zergaren kuota likidoaren ehuneko 150era artekoa izan daiteke.

Udalek, beren zerga-ordenantzetan, errekarua aplikatu ezin zaien kasuak ezarri ahal izango dituzte. Zerga arautzen duen foru-araudian bertan ere sartu dira aplikatu ezin diren kasuak.

Arabako eta Bizkaiko foru-araudiek nahitaezko eta hautazko hobariak bereizten dituzte. Gipuzkoan, hobari guztiak hautazkoak dira eta, beraz, udal-erabakia behar dute kasu guztietan, eta dagokion erregulazioa ordenantza fiskalean. Hobari komun ugari daude hiru lurraldeetan (urbanizazio-enpresetako higiezinak, babes publikoko etxebizitzak, nekazaritza-kooperatibetako landa-ondasunak, familia ugariak, etxebizitza hutseko programetako higiezinak, eguzki-energia edo beste energia berriagarri batzuk aprobetxatzeko sistemak dituzten higiezinak, ibilgailu elektrikoentzako karga-puntuak), baita horietako bakoitzaren beste hobari espezifiko batzuk ere.

Aldian behin sortzen den zerga da, eta urte naturalarekin (urtarrilaren 1a) bat datorren zergaldiaren lehen egunean sortzen da. Sortzapen-datak honako hauek zehaztuko ditu: zerga ordaindu behar duen subjektu pasiboa, karga-tasa, aplikatzekoak diren hobariak eta salbuespenak, aplikatu beharreko katastro-balioak eta ordenantzan sartu nahi diren aldaketak. Aldaketa fisikoak, ekonomikoak edo juridikoak gertatu eta hurrengo zergaldian izango dituzte ondorioak.

OHZ kudeatzeko, katastro-erroldan jasotako informazioa erabiltzen da. Errolda hori urtero sortuko da, eta udalei bidaliko zaie, OHZ kobratu aurretik, udalerriri bakoitzerako.

Foru-aldundiei soilik dagozkie katastroko prestakuntza, kontserbazioa, berritzea eta berrikuspena, errolda egitea, ikuskatzea, katastroko kartografia egitea eta kudeatzea, eta katastroei eta zergaren erroldari dagozkien gainerako eginkizunak.

Kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta diru-bilketako ahalmenak, borondatezko epean zein epe exekutiboan, bai eta zerga-kudeaketaren bidez emandako egintzak berrikustea ere, zergapeko ondasunak dauden udal-mugarteko udalari dagozkio.

1.7.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGA

JEZ kudeaketa partekatuko zerga da, eta, salbuespen jakin batzuekin, zentsu-kudeaketa foru-aldundiei dagokie, eta zergen kudeaketa udalei.

Egitate zergagarria da dagokion lurralde historikoan jarduera enpresarial, profesional edo artistikoak egitea, lokal jakin batean egin edo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon ala ez. Ez dira lotuta egongo nekazaritza-jarduerak, mendeko abeltzaintza-jarduerak, baso-jarduerak eta arrantza-jarduerak.

JEZren subjektu pasibo dira, zergadun gisa, dagokion lurralde historikoan zergapeko egitatea sortzen duen edozein jarduera egiten dutenak. Pertsona fisikoak, lurralde erkidean ez bezala, ez daude salbuetsita, oro har.

Foru araudian araututako salbuespenen artean, bi kasu nabarmendu behar dira:

- a) Bere jarduera zerga honen lehenengo bi zergaldietan hasten duten subjektu pasiboak.
- b) Egiten dituzten jarduera guztiengatik bi milioi eurotik beherako eragiketa-bolumena (Bizkaia), milioi bat eurotik beherakoa (Araba) edo negozio-zifraren zenbateko garbia milioi bat eurotik beherakoa (Gipuzkoa) duten subjektu pasiboak.

Udal kuota osoa zehazteko, honako hau hartu behar dugu kontuan:

- a) Tarifak arautzen dituen foru-araudia aplikatuz eta Jarraibidearen bidez, tarifa-kuota edo gutxieneko udal kuota zehaztua lortzen da.
- b) Tarifa-kuota horri aplikatuko zaizkio udal ordenantza fiskaletan onartutako haztapen-koefizientea, aldaketa-koefizientea eta kokapen-indizea.

Haztapen-koefizientea: Hautazkoa da udalentsat, eta foru-araudian zehazten da eragiketa-bolumenaren arabera (Araba eta Bizkaia) edo negozio-zifraren zenbateko garbiaren arabera (Gipuzkoa). Beraz, berariaz erabaki behar da udal ordenantza fiskalean ezartzea.

Aldaketa-koefizientea: tarifa-kuotei aplikatzen zaie, edo, hala badagokio, haztapen-koefizientearen bidez gehitutakoei. Bizkaian eta Gipuzkoan koefiziente hori bakarra da, eta ezin da izan 0,8 baino txikiagoa eta 2,2 baino handiagoa. Araban, udalek zergaren tarifetan finkatutako kuotak aldatu ahal izango dituzte, edo, hala badagokio, haztapen-koefizientea aplikatuta aldatutakoak. Horretarako, koefiziente bakarra (0,8tik 2,2ra bitartekoa) aplikatuko zaie jarduera guztiei, edo bi koefiziente, bata orokorra eta bestea hobariduna, koefiziente orokorraren ehuneko 15eraino gehienez, udal ordenantza bakoitzean berariaz adierazten diren jarduera-epigrafeetarako. Bestela, 1 izango da.

Koefizientea edo kokapen-indizea: udalek indize-escala bat ezarri ahal izango dute gutxieneko kuoten gainean edo, hala badagokio, koefiziente horiek aplikatzearen ondorioz aldatutako kuoten gainean, udalerrri bakoitzaren barruan lokalaren egoera fisikoa haztatuko duena, kokatuta dagoen kalearen kategoriaren arabera.

Kuota likidua kalkulatzeko, kuota osoari zerga arautzen duten foru-arauetan eta ordenantza fiskaletan (kooperatibak, jardueren hasiera, enplegua sortzea, ingurumen-jardunbide egokiak, jardueraren errendimendu garbi negatiboa, ekonomia zirkularra) aurreikusitako hobariak aplikatuko zaizkio, hautazkoak guztiak ere.

Udal kuotez gain, probintziako kuotak ere badaude, eta horiek ordaintzeak ahalmena ematen du lurralde historikoaren lurralde-eremuan dagozkion jarduerak egiteko, baita

estatuko kuotak ere, eta horiek ordaintzeak ahalmena ematen du Estatuko lurralde osoan jarduera gauzatzeko, bi kasuetan udal kuotarik ordaindu beharrik gabe. Ez da nahikoa jarduera lurralde historiko osoan garatzea; aukera hori berariaz jaso behar da tarifen epigrafean.

Lurraldeko eta estatuko kuotei haztapen-koefizientea aplikatu behar zaie nahitaez, baina inoiz ez foru-errekargua, aldaketa-koefizientea eta egoera-indizea.

Zergaldia urte naturalarekin bat dator, alta-aitorpenak direnean izan ezik; kasu horretan, data horretatik urte naturalaren amaiera arte izango da. Sortzapena zergaldiaren lehen egunean gertatzen da, eta kuotak ezin izango dira murriztu, alta- eta baja-aitorpenen kasuan izan ezik, horiek hainbanatu ahal izango baitira, lurralde bakoitzeko foru-arauetan ezarritako irizpide desberdinen arabera.

JEZ matrikula oinarri hartuta kudeatzen da. Zerga partekatua da, eta, salbuespen jakin batzuekin, zentsu-kudeaketa foru-aldundiei dagokie, eta zerga-kudeaketa, berriz, udalei.

Foru-aldundiei dagokie matrikularen prestakuntza eta kontserbazioa, jarduera ekonomikoen kalifikazioa, kuoten zehaztapena eta zentsu-arloko zergaren ikuskapena. Era berean, foru-aldundiei dagokie probintziako eta estatuko kuotak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta, ondoren, udalen artean banatzen dute, dagokion lurraldean onartutako hainbat irizpideren arabera.

Ordainarazteko, kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko epean, bai premiamendu-bidean, lotutako jarduerak egiten diren udal-mugarteko udalari dagozkio.

1.8.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA

TMIZ nahitaezko zerga da, zentsu-izaerakoa eta aldizkakoa (urterokoa).

Bide publikoetan zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna da egitate zergagarria, ibilgailu horien mota eta kategoria edozein izanik ere.

Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat hartuko da dagozkion erregistro publikoetan matrikulatua izan dena, erregistro horietan baja eman ez den bitartean. Zergaren ondorioetarako, ibilgailuaren titularra ibilgailuen erregistroan halakotzat agertzen dena izango da.

Salbuespenak lurralde bakoitzeko zerga arautzen duen foru-araudian jasotzen dira. Nabarmenezkoa da desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuei dagokiena. Haien erregulazioa eta lurralde erkidekoa funtsean desberdinak dira, eta honela zehazten da:

- 1.- Mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren II. eranskineko A letran aipatzen direnak, desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuak.
- 2.- Desgaitasuna duen pertsonaren izenean matrikulatutako ibilgailuak, erabilera eskusiborako. Salbuetsita daude desgaitasunen bat duten pertsonen izenean matrikulatutako 14 zaldi fiskal baino gutxiagoko ibilgailuak (muga hori ez da aplikatzen mugikortasunaren muga % 75ekoa edo handiagoa bada, betiere ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago)..Salbuespen hori inguruabar horiei eusten zaie bitartean aplikatuko zaie, bai desgaitasuna duten pertsonen gidatutako ibilgailuei, bai haiek garraiatzeko ibilgailuei.

Desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira honako hauek:

1.- Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun-maila aitortuta dutenak, baldin eta mugikortasun urriko gabezia-egoeran badaude. Halakotzat hartuko da urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren (desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena) Mugikortasun Jardueren Mugen (BLAM) azpi-baremoan (IV. eranskina, 5. apartatua) ehuneko 25eko edo hortik gorako azken mugikortasun-muga lortzea.

2. – Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa dutenak.

Desgaitasuna eta, hala badagokio, mugikortasun-jabariaren muga egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, organo eskudunak emana, eta ibilgailuaren erabilera justifikatu beharko zaio zerga ezarri zaion udalari, dagokion ordenantza fiskalean ezartzen den moduan.

Kuota osoa kalkulatzeko, ordenantza fiskalean onartutako koefiziente bat edo batzuk aplikatuko zaizkio lurralde bakoitzerako desberdinak diren oinarritzko tarifen taulari, zerga arautzen duen foru-araudiaren arabera.

Illo horretan, udalek oinarritzko tarifen taulan finkatutako kuotak handitu ahal izango dituzte, horien gainean gehienez 3ko koefizientea aplikatuz. Era berean, udalek koefiziente bat finkatu ahal izango dute tarifa-koadroan aurreikusitako ibilgailu-mota bakoitzerako. Koefiziente hori, era berean, desberdina izan daiteke ibilgailu-mota bakoitzean finkatutako zati bakoitzerako, gehieneko muga inola ere gainditu gabe.

Kuota likidua kalkulatzeko, kuota osoari hautazko hobariak aplikatuko zaizkio, foru-araudian berariaz jasota daudenak eta udalak ordenantza fiskal bidez onartu dituenak (ibilgailuak kontsumitzen duen erregai-motaren arabera, ibilgailuen motorren ezaugarrien eta horiek ingurumeneari duten eraginaren arabera, gutxienean antzinasuna duten ibilgailuak eta familia ugariako kideren baten titulartasuneko 5 plaza edo gehiagoko ibilgailuak).

Zerga urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortzen da, lehen aldiz eskuratzen denean izan ezik. Kasu horretan, kuotaren zenbatekoa erosketa-dataren eta abenduaren 31ren edo, hala badagokio, ibilgailuaren bajaren arteko denborari proportzionalki dagokiona izango da.

Ibilgailuen bajaren kasuan, zergaren kuotaren zenbatekoa urtarilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan ibilgailuari baja ematen zaion egunera arteko denborari proportzionalki dagokiona izango da.

Bi kasuetan kuotak hainbanatu egin beharko dira, baina irizpideak desberdinak dira hiru lurraldetan.

Nolanahi ere, ibilgailua transferituz gero, ez da kuota hainbanatuko. Trafikoko buruzagitzak ez du. Trafiko-buruzagitzek ez dituzte transferentzia-espedienteak izapidetuko, aldez aurretik zerga ordaindu del egiaztatzen ez bada.

1.9.- EGONALDI TURISTIKOEN GAINEKO ZERGA

ETZ nahitaezko zerga da, erreala, zeharkakoa eta berehalakoa, 2026an sortua, eta ondorioak 2027ko urtarilaren 1etik aurrera hasiko da galdatzen.

Zerga egitatea da zergadunek dagokien lurraldeko edozein udalerritan kokatutako turismo-ostatuko establezimenduetan egiten duten egonaldia, eguneko edo zatikika, gaua igaro zein ez.

Establezimendu turistikoak, erabilera turistikoko etxebizitzak eta gurutzaontzi turistikoak bereizten dira.

Lehenengoen barruan, kategoria hauek ezartzen dira: hotelak, pentsioak, apartamentu turistikoak, kanpinak eta kanpatzeko beste modalitate batzuk, nekazaritza-turismoko establezimenduak, landetxeak, aterpetxeak eta turismoko beste ostatu establezimendu batzuk.

Erabilera turistikoko etxebizitzari dagokienez, bi modalitate aurreikusten dira: erabilera turistiko etxebizitzak osorik alokatuak eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, logelaka alokatuak.

Itsas bidaia turistikoko ontziek zergapeko egitatea osatzen dute dagokion udalerriko portu batean geldialdia egiten dutenean, eta ez, beraz, hasiera edo helmuga portuan dutenak.

Foru-arauek salbuespen berberak jasotzen dituzte hiru lurraldeetan turismo-egonaldi hauetan:

- a) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioa edozein Estatu kideak Administrazio publikoek helburu turistikoekin antolatutako gizarte programek diruz lagundutakoak
- b) Hemezortzi urtetik beherako pertsonen egindakoak
- c) 100eko 65eko desgaitasuna edo handiagoa edo II. edo III. graduak mendekotasuna egiaztatzen duten pertsonen egindakoak eta haien laguntzaileak
- d) Unibertsitateko hirugarren ziklora arteko ikasketak, ikerketa akademikoa edo talentu-programa egiteko egindakoak.
- e) Osasun-arazoak dituen edozein pertsonarena eta haren laguntzaileena; gehienez laguntzaile bat egongo da pertsona bakoitzeko.
- f) Aurreikusi ezin diren edo saihetsezinak diren eta hondamendi naturalekin, larrialdi-egoerekin edo indarkeriazko ekintzekin zerikusia duten gertaerak eragindakoak. Zergaduna bizi den udalerrian ezohiko egoeren ondorioz egindakoak ere sartzen dira, hala nola obrak edo ezbeharrak.

Subjektu pasiboa, zergadun gisa, turismo-establezimenduetan egonaldia egiten duen pertsona fisikoa izango da, edo, gurutzaontzien kasuan, zerga sortzen den unean igarobidean dauden itsasotiko bidaiariak.

Zergaren kudeaketaren ondorioetarako, garrantzi berezia hartzen du zergadunaren ordezkariak, hura behartuta baitago zergaren kudeaketatik eratorritako betebeharrak materialak eta formalak betetzera: ordezkariak edozein unetan eskatu beharko dio zerga zergadunari egonaldia amaitu baino lehen, eta zergadunak, berriz, dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du, bai eta zerga-kuota zehazteko behar den informazioa ere.

Zerga arautzen duen foru-araudiaren arabera, ordezkariak dira turismo-ostatu edozein establezimenduren ustiapenaren titularrak, eta, gurutzaontzi turistikoaren kasuan, armadorearen edo ontzi-ustiatzailearen izenean eta hura ordezkatzuz jarduten duen kontsignataria.

Zergaren zerga oinarria kalkulatzeko, aintzat hartuko da zenbat egonaldi unitate egiten dituen zergadunak egonaldi jarraitu batean turismoko ostatu establezimendu

berean. Zergadunaren egonaldi jarraitu bakoitzeko egonaldi-unitateen kopuruaren arabera zehazten da zerga-oinarria. Hogeita lau ordutik beherako egonaldiak egonaldi-unitatetzat hartzen dira. Itsas bidaiako ontzien kasuan, egonaldi-unitatetzat hartuko da ainguratzetik edo amarratzetik zenbatutako 24 orduko aldi bakoitza edo zatikia.

Zerga-kuota kalkulatzeko, udalak ordenantza fiskal bidez onartzen duen kargatasa aplikatuko zaio zerga-oinarriari (egonaldi-unitateen kopurua), turismo-ostatuko establezimendu bakoitzaren arabera foru-arauan ezarritako gutxieneko eta gehieneko muga barruan. Udalak dagokion ordenantza onartzen ez badu, gehieneko tasak aplikatuko dira.

Hobariak (% 100era artekoak) bi kasutan bakarrik ezar daitezke:

- a) Udalerrian 25 ostatu-plaza edo gutxiago daudenean.
- b) Udalerriko turismo-intentsitatea 100eko 1 baino txikiagoa denean eta, gainera, ostatu-plazen kopurua 75 baino handiagoa ez denean.

Era berean, % 50erainoko errekarquak ezar daitezke bi kasutan, bateraezinak direnak:

- a) Udalerrian 750 ostatu-plaza edo gehiago daudenean.
- b) 5.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerrietan, turismo-intentsitatea % 10ekoa edo handiagoa denean.

Ondorio horietarako, erreferentziatzat hartuko da Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak urtero egiten duen argitalpenetik ondorioztatzen diren ostatu-plazen kopurua. Argitalpen hori ETEEn eta EUSTATen eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta egiten da..

Intentsitate turistikotzat jotzen udalerrian dauden ostatu plazen ratioa, udalerriko zuzenbidezko biztanleen kopuruarekin alderatuta.

Zergaren sortzapena turismo-ostatuko establezimendu berean egindako egonaldi jarraituari dagokion egonaldi turistikoko bakoitzaren hasieran gertatuko da, egonaldi-unitate bakoitzeko zenbatuta.

Turismo-ostatuko establezimenduaren titularrak turismo-ostatuko plaza zergadunaren esku jartzen duen unea hartuko da turismo-egonaldiaren hasieratzat. Turismo-gurutzaldiko ontzien kasuan, itsasontziak udalerriko porturen batean geldialdia egiten duenean hasiko da egonaldia.

Zergadunaren ordezkioak edozein unetan eskatuko dio zerga zergadunari, egonaldia amaitu aurretik. Ondorio horietarako, zergadunak eskatu beharreko zerga-kuota zehazteko behar diren elementuak jakinaraziko dizkio ordezkioari, eta, hala badagokio, aplikatu beharreko salbuespenen egiaztagiriak emango dizkio.

Nolanahi ere, zergadunak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko dio ordezkioari, eta ezingo dio beste pertsona edo erakunde bati jasazarazi.

Zerga kudeatu, ikuskatu eta borondatezko epean zein epe exekutiboan biltzea, zerga zehapenak ezartzea, eta tributua aplikatzean eta zerga zehapenak ezartzean emandako egintzak berrikustea turismoko ostatu establezimendua edo portua kokatuta dagoen udal mugarteko udalari dagokio.

Zergaren kudeaketari dagokionez, sistema da zergadunaren ordezkioak autolikidazioa egitea eta dagokion zenbatekoa sartzea.

Hala ere, zerga-kuotaren % 100eko hobaria aplikatzen duten establezimenduek ez dute autolikidazioa aurkeztu beharrik.

Ordezkoak establezimendu bat baino gehiago ustiatzen badu, autolikidazio bakarra egin ahal izango du, eta kuota guztien ordainketa agregatua egin.

Likidazio-aldia hiru hilekoa izango da, eta autolikidazioak ordenantzak ezarritako epean eta moduan aurkeztu beharko dira. Ordenantza onartu ez bada, hiruhileko likidazio-aldia amaitu eta hurrengo hilabeteko egutegiko hogeita bost egunetan aurkeztu beharko dira.

1.10.- HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

HLBGZ hautazko tributua da, eta egitate zergagarria hiri-izaerako lursailek izandako balioarengetikuntzagatik egiten da, lursailen jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik edo gozameneko edozein eskubide errealek eratzeagatik edo eskualdatzeagatik agerian geratu direnak, kargatutako lursailen gaineko jabariari dagokionez.

Urriaren 26ko 182/2021 KA Eren ondoren, zeinak, aldi berean, 2017ko epailetan ezarritako doktrina konstituzionala berrikusi baitzuen, premiaz onartu ziren HLBGZren foru-arauen aldaketak, zergapetzerik ezaren eta zerga-oinarria zehaztearen arlokoak, toki ogasunei buruzko Estatuko Legea aldatu zen modu berean.

Zergaren foru-araudian arautzen diren zergapean ez dauden kasuen artean, konstituzio-doktrinaren arabera, aipamen berezia merezi du eskualdatzei buruzkoa, non egiaztatzen baita ez dela balio-gehihurtzarik izan eskualdatze- eta eskuratze-datetan lurren balioen arteko diferentziagatik.

Salbuespenen artean, komeni da nabarmentzea, Estatuko, autonomia-erkidegoko eta foru-aldundietako administrazioez eta zuzenbide publikoko erakundeez gain, multzo historiko-artistiko baten edo interes kulturalako multzo baten barruan dauden ondasun-eskualdatzei buruzkoa, higiezin horietan obrak egin direla egiaztatzen denean, bai eta betebeharra irabazi-asmorik gabeko erakunde batena denean ere (eliza katolikoa eta beste erlijio-konfesio batzuk barne).

Kontuan izan behar da zerga honetan zergapetzerik ezaren (zergapeko egitatea ez da egiten) eta albuespenaren (zergapeko egitatea egiten da) arteko bereizketak ondorio garrantzitsuak dituela balio-gehihurtza sortzeko aldia eta, beraz, etorkizuneko eskualdatzeetan ordaindu beharreko kuota kalkulatzeko orduan.

Subjektu pasiboa zergadun gisa edo zergadunaren ordeko gisa izango da. Azken horrek egin behar die aurre zergaren kudeaketatik eratorritako betebeharrak material eta formalei. Foru-araudian, albuespen gisa hartzen den Estatuko erregulazioan ez bezala, ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzioen kasuetan, lurren eskuratzailerak izango da zergadunaren ordeko gisa, eta ezin izango dio zerga zergadunari jasanarazi.

Eskualdatze- eta eskuratze-datetan lursailen balioen arteko aldeagatik balio-gehihurtzarik ez dagoela egiaztatzen duten eskualdaketak ez daude lotuta.

HLBGZren zerga-oinarria hiri-lurren balioaren benetako gehiurtzak osatuko du, eta hori zehazteko sistema duala da:

a) Zerbatespen-metodo objektiboa.

Gehiurtza erreala kalkulatzeko, lurren sortzapen-uneke katastro-balioa balio-gehiurtzaren sortze-aldiari dagokion koefizientearekin biderkatzen da.

Zergaren foru-araudian jasotako kalkulu-arau espezifikoak bete beharko dira jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak, solairuak altxatzeko edo lurpean eraikitze eskubideak edo jabetza nahitaez kentzeko eskubideak eratu edo eskualdatu behar direnean.

Koefizienteak ordenantza fiskalean onartu beharko dira, eta ezin izango dira foru-arauetan ezarritakoak baino handiagoak izan. Koefiziente horiek urtero eguneratu beharko dira foru-arau bidez. Eguneratzearen ondorioz, ordenantza fiskalak onartutako koefizienteren bat dagokion legezko gehieneko berria baino handiagoa bada, zuzenean aplikatuko da, soberakin hori zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

b) Zuzeneko zenbatespenaren metodoa.

Subjektu pasiboak hala eskatuta, transmisio- eta eskuratze-balioen diferentziaren bidez zehaztutako balio-gehikuntzaren zenbatekoa metodo objektiboaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarri gisa.

Auzitegi Gorenak berretsi du aurretiko zergetan aitortutako balioak lotesleak direla HLBGZren ondorioetarako, kontrakoa frogatu ezean.

Zerga-oinarriari gehienez ere ehuneko 30eko karga-tasa aplikatuko zaio. Udalek tasa bakarra onartu ahal izango dute, edo bat balioaren gehikuntza sortzen den aldi bakoitzerako.

Kuota osoa kalkulatzeko, zerga-oinarriari karga-tasa aplikatuko zaio, eta kuota likidoa erdiesteko, udalak, hala badagokio, onartu duen hobaria aplikatuko zaio kuota osoari (heriotzaren ondoriozko eskualdaketak ondorengoen, adoptatuen, ezkontideen edo izatezko bikoteen alde).

Aitorpenak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa da, eskualdaketetarako eta, oro har, "intervivos" egintzetarako sortzapen-datatik zenbatzen hasita. Heriotzagatiko eskualdaketetan, epea urtebetekoa (Bizkaia) edo sei hilabetekoa da, eta urtebetera arte luza daiteke, subjektu pasiboak (Araba eta Gipuzkoa) eskatuta. Autolikidazio-sistema ezartzeko ahalmena ematen zaie udalei.

Notariotzak behartuta egongo dira dagokien udalera zerrenda edo aurkibide bat bidaltzera, zergaren egitate zergagarria gauzatu dela adierazten duten agiri guztiak jasotzen dituen.

Zergapeko egitatea gauzatu izana jakinarazteko betebeharra ere badago, honako kasu hauetan:

- a) Dohaineko eskualdaketetan intervivos kasuan: dohaintza-emaileak edo zergaren menpe egotea eragiten duten eskubide errealak dohainik eratu edo eskualdatzen dituzten pertsonak
- b) Kostu bidezko eskualdaketen kasuan: eskuratzailleak edo kasuan kasuko eskubide erreala zein pertsonaren alde eratu edo eskualdatu eta pertsona horiek.

Jabetza Erregistroak ez du egingo HLBGZren zerga-betebeharrak zehazten dituen egintza edo kontratua jasotzen duen ezein dokumenturen inskripzioa, aldez aurretik autolikidazioa edo, hala badagokio, zergaren aitorpena edo dagokion komunikazioa aurkeztu izana egiaztatzen ez bada.

1.11.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA

EIOZ udal zerga bat da, hautazkoa, eta bere egitate zergagarria da udalerrian edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baldin eta obra edo hirigintza-lizentzia lortzeko eskatzen bada, lizentzia hori lortu den ala ez kontuan hartu gabe; edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezteko eskatzen bada, betiere lizentzia edo kontrol-jarduera ematea zergapeko udalari badagokio.

Foru-araudiak ez ditu berariaz jasotzen zergapekoak ez diren kasuak. Nolanahi ere, lizentziarik, berariazko adierazpenik edo alde zuzeneko jakinarazpenik behar ez dutenak izango dira, hala nola urbanizazio-proiektuetan jasotako obrak, interes orokorreko edo lurralde-interes nabarmeneko obrak, bai eta sektoreko legerian jasotako kasuak ere, hirigintza-lizentzia ezin dela eskatu zehazten dutenak.

Zerga honetatik salbuetsita daude eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, herri eta hondakin-uren saneamendurako, baldin eta horien jabea Estatu, EAE, lurralde historikoak edo toki-erakundeak badira; nahiz eta horien kudeaketa erakunde autonomoek egin, bai inbertsio berriko obrak direnean, bai kontserbaziokoak direnean. Eliza Katolikoari aplikatu beharreko salbuespenari dagokionez, Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko akordioari eta Estatuak emandako araudiari jarraitu beharko zaie. Gaur egun, bi alderdiek sinatutako akordio gehigarriaren ondoren, erregimena EIOZetik ez salbuestea da.

EIOZren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, eraikuntzen, instalazioen edo obraren jabeak, higiezinaren jabetza izan ala ez. Ordezkoak dira dagozkien lizentziak eskatzen dituztenak edo dagozkien erantzukizunpeko adierazpenak edo alde zuzeneko jakinarazpenak aurkezten dituztenak, edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

EIOZa eraikuntza, instalazioa edo obra hasten den unean sortzen da, dagokion lizentzia lortu ez bada ere.

EIOZren zerga-oinarria eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta efektiboak osatzen du, eta honako partida hauek osatuko dute

- a) Obra zibilari dagozkion gastuak, gauzatze materialaren aurrekontuan jasotakoak, hala nola materialak, eskulana, bitarteko osagarriak edo makineria
- b) Eraikuntzan sartzen diren instalazioen horniduratik eratorritako gastuak, hala nola iturgintza, elektrizitatea, klimatizazioa eta berokuntza, saneamendua, beiratea, instalazio bereziak (suteak detektatzea, igogailuak, karga-jasogailuak).
- c) Obratik kanpo eraikitako ekipamenduak edo makinak instalatzeko kostuak, baina ez ekipamenduen beraren kostua. Obra-lizentzia edo hirigintza-lizentzia eskatu zen proiektuan agertzen diren eta egindako eraikuntzarekiko berezko identitatez ez duten instalazio edo elementu bereizgarrien balioa sartu beharko da, parke eolikoetako aerosorgailuen kasuan bezala (AGEren 2010eko martxoaren 14ko epaia).

Hobariak foru-arauetan zerrendatzen diren ordena berean aplikatu behar dira: udal interes edo erabilera bereziko deklaraturako eraikuntzak, instalazioak eta obrak (% 95era arte), energia berriztagarrien aprobetxamendu termiko edo elektrikoko sistemak dituztenak (% 95era arte), azpiegiturretan inbertsio pribatuak sustatzeko planei lotutakoak (% 50era arte), babes publikoko etxebizitzak edo etxebizitza sozialei dagozkienak (% 50era eta % 95era arte), irigarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak errazteko (% 90era arte), ekonomia zirkularra (% 50 arte), ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak (% 90 arte). Arabak gehitu

ditu, halaber, despopulazio-arriskuan dauden eremuak (% 95era arte) eta kuadrillek erabilera edo zerbitzu publikokoak dituztenak (% 90era arte).

Zergaren kudeaketa ondoz ondoko bi likidaziotan oinarrituta egiten da:

- a) Behin-behineko konturako likidazioa, ondoko kasu hauetan: nahitaezko lizentzia ematen denean, edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu denean; edo eskatu, onartu edo oraindik ukatu ez bada, edo hura aurkeztu bada, eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean.

Lehen likidazio horren zerga-oinarria behin-behinekoa da, eta honela zehaztu daiteke:

1. Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi badu eta hori nahitaezko baldintza bada.
 2. Ordenantza fiskalak hala aurreikusten duenean, horretarako ezartzen dituen indizeen edo moduluen arabera.
- b) Eraikuntza, instalazioa edo obra amaitu ondoren, eta kostu erreala eta eraginkorra kontuan hartuta, udalak, dagokion administrazio-egiaztapenaren bidez, arestian deskribatutako zerga-oinarria aldatuko du, hala badagokio, behin betiko likidazioa eginez eta subjektu pasiboari eskatuz, edo, hala badagokio, dagokion zenbatekoa itzuliz.
 - c) Ordenantza fiskalak kudeaketa-sistema bateratu eta koordinatu bat aurreikus dezake EIOZren eta lizentzia emateagatik tasaren artean, eta zergaren kuota tasaren zenbatekoaren kenkari bat ere ezar dezake.

1.12.- KONTRIBUZIO BEREZIAK

Toki-erakundeek, dagokion ordenantza ezarri eta onartu ondoren, kontribuzio bereziak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, obrak egiteagatik edo udal-zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik, subjektu pasiboaren ondasunetan etekina edo balio-gehikuntza sortzen badute.

Kontribuzio berezien subjektu pasiboak izango dira obrak egiteagatik edo kontribuzio-betebeharra sortzen duten tokiko zerbitzuak ezarri eta zabaltzeagatik onura berezia jasotzen dutenak:

- a) Ondasun higieziinei eragiten dieten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik, horien jabeak izango dira subjektu pasiboak.
- b) Obrak, ezarpena edo zerbitzu-handitzeak enpresa-ustiapenen ondorio badira, subjektu pasibotzat hartuko dira ustiapen horien titular diren pertsona edo erakundeak.
- c) Suteak itzaltzeko zerbitzuak ezartzeagatik edo zabaltzeagatik, subjektu pasiboaren izaera, ukitutako ondasunen jabeek ez ezik, beren jarduera dagokion udalerrian garatzen duten aseguru-konpainiei ere esleitzen zaie.
- d) Lurpeko galeriak eraiki behar badira, galeria horiek erabili behar dituzten enpresa hornitzaileak izango dira subjektu pasiboak.

Sortzapena obrak egin diren edo zerbitzua ematen hasi den unean finkatzen da. Sortzapenaren unea hartu behar da kontuan ordainketa egitera behartuta dagoen pertsona

zehazteko, nahiz eta antolamendu-akordio zehatzean zergapekotzat agertu akordioa onartzen den egunean zergapekoa dena eta nahiz eta hark kuoten ordainketa aurretatu.

Zerga-oinarria gehienez ere kostuaren ehuneko 90era arte mugatzen da toki-entitateak eusten dituen obrak egiteko edo zerbitzuak ezartzeko edo handitzeko. Horregatik, zerga-oinarria zehazteko, aurreikusten da kostu osotik kendu beharko dela toki-erakundeak gainerako administrazioetatik edo beste edozein pertsona edo erakunde publiko edo pribatutatik edo subjektu pasibo batetik lortzen dituen diru-laguntzen edo laguntzen zenbatekoa.

Foru-araudian zerga-oinarria banatzeko irizpideak finkatzen dira, obren mota (ezartzeko edo handitzeko obrak) eta izaera (bide publikoko argiteria, lorategiak jartzea, asfaltatzea, etab.) kontuan hartuta.

Behin zerga-oinarria zehaztuta, subjektu pasibo bakoitzari zerga-kuota egozten zaio, honako arau hauei jarraikiz:

- a) Oro har, zerga-oinarria banatzeko modulu batzuk ezartzen dira, batera edo bereizita aplika daitezkeenak: higiezinaren fatxadaren metro linealak, azalera, bolumen eraikigarria eta katastro-balioa, ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako.
- b) Suteak itzaltzeko zerbitzua ezartzen eta hobetzen den kasuetan, kuota ezarriko den udalerrian dauden ondasunen arriskua estaltzen duten erakunde edo sozietateen artean banatuko da.
- c) Lurpeko galeriak eraikitzeko obretan, zenbatekoa horiek erabili behar dituzten konpainia edo enpresen artean banatuko da.

Kontribuzio bereziak ezartzeko eta aplikatzeko, zergapetze-akordio bat eta ekarpen zehatz bakoitzerako antolamendu-akordio bat behar dira.

Kontribuzio berezien araubide juridikoaren alderdi garrantzitsuenetako bat herritarren lankidetzari buruzkoa da, hau da, eragindako pertsonen zergadunen administrazio-elkarte bat eratzeak aukerari buruzkoa. Akordioa eskatzen da, eragindakoen gehiengo osoz, eta quoruma indartu egiten da, ordaindu beharreko kuoten bi herenak, gutxienez, ordezkatzeko eskakizunarekin.

1.13.- TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA TRIBUTUAK EZ DIREN ONDARE- PRESTAZIO PUBLIKOAK

Udal-erakundeek tasak ezarri ahal izango dituzte udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, baita udal eskumeneko zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ere, baldin eta subjektu pasiboei bereziki badagozkie, eragiten edo mesede egiten badiete.

Zerbitzuak emateagatiko tasen kasuan, toki-eskumenekoak izatea eskatzen da, eta honako inguruabar hauetako edozein betetzea:

- a) Zerbitzua edo jarduera zergapekoek borondatez eskatu edo jasotzekoa ez izatea. Eskabidea edo harrera ez da borondatezko zat joko legezko edo erregelamenduzko xedapenek hala ezartzen dutenean, edo eskatzailearen bizitza pribaturako edo sozialerako ezinbestekoak diren ondasun, zerbitzu edo jarduerak direnean.

- b) Sektore pribatuak zerbitzu edo jarduera horiek ez ematea edo ez egitea, indarrean dagoen araudiaren arabera sektore publikoaren alde erreserbatuta egon ala ez.

Zerbitzuak emateagatik tasen gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu zerbitzuaren kostu erreala edo aurreikus daitekeena. Horiek kalkulatzeko, zuzeneko eta zeharkako kostuak hartuko dira kontuan, finantza-kostuak eta amortizazioa barne, eta, hala badagokio, zerbitzua mantentzeko eta zentzuz garatzeko beharrezkoak direnak.

Tasen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartu ahal izango dira ordaintzera behartuta dauden ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide orokorrak.

Udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik aurreikusitako tasen zenbatekoa honako arau hauen arabera finkatuko da:

- a) Oro har, erreferentzia gisa hartuko da erabilera edo aprobetxamendu horren ondoriozko erabilgarritasunak merkatuan izango lukeen balioa, ukitutako ondasunak jabari publikokoak ez badira.
- b) Lizitazio publikoko prozedurak erabiltzen direnean, emakidaren, baimenaren edo esleipenaren xede den proposamenaren balio ekonomikoak zehaztuko du tasaren zenbatekoa zein den.

Interes orokorrekoak diren edo auzotar guztiei edo askori eragiten dieten hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen kasuan, udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasen zenbatekoa desberdina da lurralde bakoitzean.

Arabian eta Bizkaian, enpresa horiek udalerrri bakoitzean urtero lortzen duten fakturazioaren diru-sarrera gordinen ehuneko 1,5 izan daiteke, eta bi lurraldeetan sartu da halaber, araubide berezi hori telefonia mugikorreko enpresei ere aplikatu ahal izatea.

Gipuzkoak, bere aldetik, artikuluaen jatorrizko idazkerari eutsi dio, eta adierazi du diru-sarrera gordin horien ehuneko bat izan daitekeela, ehuneko zehatzik zehaztu gabe, eta gaineratu du ezin izango direla araubide berezi horretan sartu telefonia mugikorreko enpresak.

Tasak hautazko tributuak dira udalentsat eta, beraz, udal erabakia behar dute horiek ezartzeko eta ordenatzeko, dagokion ordenantza fiskalaren bidez. Hala ere, nahitaezkoak izango dira hiri-hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuagatik tasak direnean, baldin eta tasa horiek nahitaez eskatu behar badira, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean xedatutakoaren arabera.

Jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasak ezartzeko erabakiak, edo zerbitzuak osorik edo zati batean finantzatzekoak, txosten tekniko ekonomikoak kontuan hartuta hartu beharko dira, eta horietan merkatu-balioa edo horien kostuaren estaldura aurreikusia adierazi beharko da, hurrenez hurren.

Salbuespenak berdin-berdinak dira hiru lurraldeetan.

Arabako eta Bizkaiko toki-ogasunen araudiak tokiko tasen arloko hobariak baino ez ditu aurreikusten, ezohiko izaerarekin edo salbuespenezko edo premiazko arrazoiengatik, eta, bereziki, COVID-19ak eragindako kolektiboentzat. Gipuzkoan, toki-ogasunei buruzko foru-araua aldatu ondoren (9. artikulua), gaikuntza ematen zaie, oro har, toki-erakundeei tasen arloko hobariak onartzeko.

Foru-araudiak, halaber, zerbitzu publikoko betebeharrak dituzten operadoreen araubide berezi bat arautzen du, zeinaren bidez beste operadore batzuei zabaltzen baitzaie Espainiako Telefono-konpainia Nazionalak bakarrik zuen araubide berezia. Araubide berezi horrek esan nahi du aplikazio-eremuan sartzen diren operadoreek ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaindu beharko dutela, eta, tokiko gainerako tributuen eta prezio publikoen kasuan, haien ordainarazpenagatik dagozkien zerga-zorren ordezkari konpentsazio bat emango dela urtero.

Tasak zergapeko egitatearen izaeraren arabera sortuko dira, dagokion ordenantza fiskalak zehazten duen moduan:

- a) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, edo zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean, nahiz eta bi kasuetan eska daitekeen aldez aurretik haren zenbateko osoa edo partziala gordailutzea.
- b) Jarduketa hasten duen eskaera edo espedientearen aurkezten denean, zeina ez baita egingo edo izapidetuko dagokion ordainketa egin gabe.

Prezio publikoak diruzko kontraprestazioak dira, eta tokiko eskumeneko zerbitzuak emateagatik edo administrazio-jarduerak egiteagatik ordaindu behar dira, betiere honako bi inguruabar hauek gertatzen badira:

- a) Zerbitzu publikoak edo administrazio-jarduerak herritarrek borondatez eskatu edo jasotzekoak izatea.
- b) Zerbitzu publikoak edo administrazio-jarduerak sektore pribatuak ematea edo egitea.

Prezio publikoen zenbatekoak emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua estali beharko du gutxienez. Arrazoi sozialek, ongintzakoek, kulturek edo interes publikoek hala gomendatzen dutenean, erakundeak zerbitzuaren kostuaren azpiko prezio publikoak ezarri ahal izango ditu.

Foru-arauek, Estatuko araudian bezala, ez dute prezio publikoak finkatzeko prozedurarik ezartzen, eta, beraz, hainbat irtenbide erabil daitezke, praktikan bitan multzoka daitezkeenak:

- a) Diru-sarrera ez-tributarioak direnez, ordenantzak onartzeko prozedura orokorrari jarraitu beharko zaio, hau da, hasierako onarpena, 30 egun balioduneko jendaurreko erakustaldia eta behin betiko onarpena, dagokion Aldizkarian argitaratu eta 15 egun igaro ondoren.
- b) Finkatzea eta aldatzea, osoko bilkuraren edo tokiko gobernu-batzarraren erabaki sinpleen bidez, eginkizun hori udal bakoitzak erabakitzen duen moduan eskuordetuta dagoenean, eta erakunde autonomoei esleitzeko aukerarekin, prezioen kasuan zerbitzuen kostua estaltzeko. Kasu horietan, dagokion lurralde historikoko aldirikari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

TIEOPak tributuoak ez diren zuzenbide publikoko diru-sarrerak dira. Udal zerbitzuak emateagatik edo obrak ustiatzeagatik zuzenbide pribatuko erakunde bidez edo zeharkako kudeaketaren bidez jasotzen diren derrigorrezko kontraprestazio ekonomikoak dira. Zehazki, halakotzat hartuko dira honako araubide hauetan obrak ustiatzeagatik edo zerbitzuak emateagatik eskatutakoak: emakida, ekonomia mistoko sozietateak, enpresa-erakunde publikoak, kapital erabat publikoko sozietateak eta zuzenbide pribatuko beste formula batzuk.

TIEOPak ordenantza ez-fiskal baten bidez arautuko dira, eta, hura onartzeko prozeduran, toki-erakundeek nahitaezko txosten ez-loteslea eskatu beharko diete ordenamendu juridikoak haietan esku hartzeko ahalmenen bat esleitzen dien administrazio publikoei.

Bestalde, prezio pribatuak ez dira berariaz arautzen toki-ogasunen araudian, eta hondarizaera dute. Horrela, tasak eta TIEOPPak ez bezala, ondare-prestazio hauen ordainketa ez da derrigorrezkoa eta, prezio publikoak ez bezala, ez ditu udalak zuzenean ematen, baizik eta pertsonifikazio bereiziko kudeaketa zuzeneko moduren baten bidez edo zeharkako kudeaketaren bidez.

1.14.- TOKI ERAKUNDEEN PARTAIDETZA TRIBUTU ITUNDUETAN ETA ITUNDUTA EZ DAUDENETAN

Ekarpenen 4/2021 Legeak (20.1 artikulua) xedatzen du toki-ogasunek parte hartuko dutela Ekonomia Itunaren kudeaketatik eratorritako banaketari lotutako diru-sarreretan, Estatuari ordaindu beharreko kupoa, erakunde erkideei egindako ekarpenak eta foru-aldundien finantzaketa espezifikoak deskontatu ondoren, baita egokitzapen fondo orokorraren zenbateko garbian, positiboan edo negatiboan ere¹⁰.

Arabak eta Gipuzkoak foru-arau espezifikoetan ezarrita dute parte-hartze hori¹¹. Bizkaia, bestalde, toki ogasunei buruzko foru arauan bertan, udalek zerga itunduetan duten partaidetzari buruzko erregulazio zabalagoa eta zehatzagoa jasota du, eta udalak finantzatzeko foru funtsa (Udalkutxa) delakoaren zuzkidura globala lurraldeko udal erakundeen artean banatzeko irizpideak ere finkatuta ditu.

Toki-erakundeek itunduta ez dauden tributuetan duten partaidetzari dagokionez, EILren 51. artikulua xedatzen du foru-aldundiek banatuko dituztela, banaketa-arau orokorren arabera, bere lurralde historikoko toki-erakundeei dagozkien zenbatekoak. Arabako eta Gipuzkoako toki ogasunei buruzko foru arauen 41. artikulua Ekonomia Itunari lotzen bazaizkio ere, Bizkaiko toki ogasunei buruzko foru arauaren 40.3 artikulua esplizituagoa eta argiagoa da, eta itunduta ez dauden tributuetan udalek duten partaidetzari tributu itunduei dagokiena arautzen duten banaketa-irizpide berak aplikatzen zaizkio.

1.15.- TRIBUTU ITUNDUAK BANATZEKO EREDUA

Ekarpenen Legeak banaketa bertikalaren eredua eta banaketa horizontalaren eredua bereizi zituen baliabideen banaketan. Bertikalak Eusko Jaurlaritzaren eta lurralde historikoen arteko baliabideen banaketari egin zion erreferentzia, eta hortik atera ziren lurralde historikoek hari egin beharreko ekarpenak. Horizontalak, berriz, lurralde historiko bakoitzak ondoriozko zenbatekoen ordainketari aurre egiteko egin behar duen ekarpena zehaztu zuen.

a) Banaketa bertikaleko eredua

Foru aldundiek Ekonomia Itunaren kudeaketatik lortutako diru-sarreretatik kupoen metodologiatik eratorritako ondoko kenkariak aplikatu behar dira: kupo likidoa eta Estatuaren aldeko konpentsazioak; EAEn aldeko konpentsazioak eta EAEn dagokion

¹⁰ Ikus ETElen 117. artikulua eta LHLren bigarren xedapen gehigarria.

¹¹ Arabaren kasuan, ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua da, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duena (TEFFF), eta apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren 2018tik 2023ra bitarteko ekitaldietarako, 2027ra arte luzatu dena 18/2024 Foru Araua ren bidez, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana (OZFP) arautzen duena; Gipuzkoaren kasuan, berriz, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa (UFFF) arautzen duen azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua aipatu behar dugu.

zenbatekoa lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko programa eta jarduketari lotutako kostuan parte hartzeagatik; eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabakitzen dituen kenkariak. Horretaz gain, LHLren 22.3 artikulutik eratorritako kenkari berezia ere aplikatu beharko da, eredu bertikalek banatu beharreko baliabideak lortuz.

Baliabide horiek banaketa bertikaleko koefizientearen arabera banatzen dira. Koefiziente hori, 2022-2026 aldirako, ehuneko 70,81 da Eusko Jaurlaritzarako, eta ehuneko 29,19 foru-aldundietarako. Horrela, banatu beharreko baliabideei Eusko Jaurlaritzarako adierazitako ehunekoa aplikatuz, foru-aldundiak erakunde erkideen karga orokorreko eusteko egiten duten ekarpen orokorra lortzen da.

Banaketa bertikaleko koefizientea kalkulatzeko, 35 milioi euroko aparteko fondoa sartu zen gizarte-zerbitzuetako proiektuetarako, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroren eratorritako prestazioak eta zerbitzuak finantzatzeko. Fondo hori, lehen aldiz, 2016. urterako 10 milioi euroz hornitu zen, eta udalak izan ziren hartzaileak. 2017tik aurrera, zuzkidura urtean 20 milioi eurokoa izan zen, eta hartzaileak udalak eta foru-aldundiak izan ziren, zati berdinetan.

Ekarpen orokorraz gain, foru-aldundiak ekarpen espezifikoak egin beharko dizkiote Eusko Jaurlaritzari, kupoaren metodologiatik datozen kenkarien zenbatekoan. Hau da, kupoaren kalkuluan alde aurretik kendutako kopuru horiek Eusko Jaurlaritzari (erakunde komunak) ordaintzen zaizkio.

b) Banaketa horizontalaren ereduak

Kupoari eta erakunde erkideei aurre egiteko foru-aldundiak egin beharreko ekarpenak koefiziente horizontalen arabera kalkulatu dira. Koefiziente horizontalak desberdinak dira urte bakoitzerako, eta honela kalkulatu dira:

1. Ehuneko 70, zuzenean errenta erlatiboaren arabera.
2. Ehuneko 30, zuzenean lurralde historiko bakoitzaren zerga-ahalegin erlatiboaren alderantzizkoaren arabera, lurralde historiko horren bilketa-ahalmenaren arabera haztatuta.

Horrek esan nahi du aldundiak ez dituztela ekarpenak egingo bakoitzak bildutako zenbatekoarekiko modu zuzenean proportzionalen, baizik eta ekarpen-koefiziente horien arabera dagokienaren arabera.

Foru-aldundien arteko zerga-bilketarako doikuntzak ere, zerga bereziei eta BEZari dagozkienak, ekarpen-koefizienteen proportzioan banatzen dira.

Diru-bilketaren koefizientea ekarpen-koefizientea baino handiago den heinean, baliabide gehiago izango dira, eta, ondorioz, handiagoak izango dira aldundi eta udalerrietarako baliabideak ere.

c) Egokitzapen funts orokorra

Ekarpen-eredutik erator daitezkeen lurraldeen arteko desorekak arintzeko, egokitzapen funts orokorra ezarri da. Horri esker, EAEko diru-bilketa osoan lurralde historiko bakoitzak duen partaidetza erlatiboa, fondoari egiten dion ekarpena deskontatu ondoren, ekarpen-koefiziente horizontalaren ehuneko 99ra iritsiko dela bermatzen da. Funts

honen gehieneko zenbatekoa banatu beharreko baliabideen ehuneko 1,45 izango da, bi tartetan banatuta: lehenengoa ehuneko 1era arte eta bigarrena ehuneko 0,45era arte.

Funts horren finantzaketan Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek laguntzen dute, bere koefiziente bertikal eta horizontalen proportzioan, lehen tartean (muga %1ekoa da).

Horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak funtsaren ehuneko 70,81 jarri behar duela, eta hiru foru-aldundiek gainerako ehuneko 29,19, baita funtsaren onuradun badira ere. Lurralde historiko bakoitzaren ekarpena, toki-erakundeei egotz dakiekeen zatia barne, ekitaldi horri dagozkion ekarpen-koefiziente horizontalak aplikatuz lortuko da.

Funtsaren bigarren tarte banatu beharreko baliabideen ehuneko 0,45ekoa da, eta zati berdinetan finantzatu behar dute Eusko Jaurlaritzak, ehuneko 50ean, eta foru-aldundiek, beste ehuneko 50ean.

d) Arrisku partekatuen irizpidea

Tributu itunduak banatzeko ereduan, alde batetik, arrisku partekatuen irizpideak jarduten du, euskal erakundeen arteko baliabideen barne-banaketari dagokionez, eta, bestetik, alde bakarreko arriskuaren irizpideak, Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoei dagokionez (kupoa).

Alde bakarreko arrisku-irizpide horren arabera, Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoa berdina izango da, foru-bilketaren kudeaketa edozein dela ere. Barne banaketaren ereduan (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak eta beste toki erakunde batzuk) erabiltzen den arrisku partekatuen irizpideak esan nahi du zenbat eta diru gehiago bildu, orduan eta gehiago egongo dela banatzeko, eta, aldiz, gutxien biltzen denean, orduan eta gutxiago egongo dela banatzeko.

Nolanahi ere, toki-ogasunen parte-hartzea kupoaren bilakaeraren eta, batez ere, foru-bilketaren kudeaketaren arabera izango da. Hori dela eta, otsailean, HDEKren barruan ekarpenak likidatzen dira, aurreko ekitaldiko emaitzatik benetan eratortzen diren zifren arabera.

Arestian aipatutako kontzeptuei dagozkien zifrak onartu ondoren (kupoa, ekarpen orokorra, ekarpen espezifikoak eta egokitzapenerako funts orokorra), lurralde bakoitzean (horietako bakoitzari dagozkion datuekin) erabilgarri dauden baliabideen kalkulua egin behar da, baita foru-aldundien eta udalen eta beste toki-erakunde batzuen (kontzejuak, kuadrillak) arteko banaketarena ere.

Azkenik, ETElek gutxieneko finantzaketa-bermea ezartzen du udalerrri guztientzat, eta, beraz, haien baliabide-maila ez da inola ere araubide erkideko legeria aplikatzeagatik legokiokeena baino txikiagoa izango.

1.16- TOKI-FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAK

ETELek garrantzizko aldaketak sartu zituen gai horretan: HDEK-ko foru- eta udal ordezkariak, batera eta gehiengo osoz, erakunde-maila bakoitzeko gutxienez ordezkari bat barne hartuta, itundutako zergen errendimenduan tokiko partaidetzaren gutxieneko maila adostu ahal izango dutela ezarri zuen.

Akordio hori Ekarpenen 4/2021 Legea eraman zen 2022-2026 aldirako. Xedatu zuenez, lurralde historikoetako foru-organismoek lurralde historikoko baliabide erabilgarrien gutxienez ehuneko 39,23 bideratuko zituzten haien mendeko toki erakundeetara, zerga itunduen bilketan duten partaidetza gisa, finantzaketa orokorraren bidez eta, hala badagokio, inbertsio-plan espezifikoaren bidez. Kalkulu hori egiteko formula berri bat erabiltzen da, 2007ko Ekarpenen Legean ezartzen denarekin alderatuta berritasun nagusia duena: nahitaezkoak izateaz gain, foru-kenkariak foru-aldundiei dagozkien baliabide erabilgarrien ehunekoaren barruan sartzen ditu.

Udalek (baita kontzejuek eta kuadrillek ere, Arabaren kasuan) zerga itunduen bilketan duten parte hartzearen ehunekoa Ekarpen Lege berrira egokitu da 2022rako, lurralde bakoitzean.

Horrela, foru-aldundiek eta toki-erakundeek bana ditzaketen lurraldeko baliabideei dagokienez, Araban, ehuneko 39,89 da (TEFFF, gehi euskara sustatzeko funts gisa; gehi gizarte zerbitzuen funtsa, gehi OZFP: eta auzo-harremanak eta obra txikiak sustatzea:), Bizkaian ehuneko 39,66 (Udalkutxa:gehi gizarte Zerbitzuen funtsa:) eta Gipuzkoan ehuneko 39,96.

Nahiz eta Ekarpenen Legeak gizarte-zerbitzuen aparteko funtsak banaketa-ereduaren barruan sartu, koefiziente bertikalaren kalkulua aldatuz, bai Arabak (gizarte-zerbitzuen zorroaren funtsa) bai Bizkaia (gizarte-zerbitzuen udal-finantzaketarako funtsa) erabaki dute bi funts horiek udalen artean banatzea, beren banaketa-irizpideen arabera.

Hala ere, horrek ez du esan nahi funts horiek baldintzatuak direnik eta berariaz gizarte-zerbitzu jakin batzuetara bideratu behar direnik; beraz, ez da beste erakunde batzuen kontrolik egon behar funts horiek xede jakin baterako erabiltzen direla egiaztatzeko eta, betetzen ez badira, itzultzea eskatzeko.

Gipuzkoak, berriz, dagokion zenbatekoa udal finantzaketarako foru funtsaren parte izatea erabaki du, banaketa gehigarriko irizpiderik sartu gabe.

Azkenik, toki-erakundeek ere parte hartzen dute Estatuari aldi baterako energia-kargengatik eta kreditu-erakunde eta kreditu-establezimenduengatik 2023ko eta 2024ko ekitaldietan ordaindu beharreko kupo likidoan konpentsatutako zenbatekoetan.

1.17.- TOKI FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAK BANATZEKO IRIZPIDEAK

Foru-erakundeak dira, eta zehazkiago lurralde bakoitzeko batzar nagusiak, tributu itunduetan toki-partaidetzaren banaketa-irizpideak arautzen dituztenak. Udal edo toki finantzaketarako foru funtsak deitzen dira.

Ekarpenen Legeak ezarri zuen lurralde historiko bakoitzeko organoen eskumena dela lurralde historiko bakoitzean toki-erakunde bakoitzari dagokion partaidetza zehaztea.

Era berean, foru-organismoek eskumen hori egikaritzeko duten askatasuna aitortu zuen, eta, ETElen ezarritakoari jarraiki, zerga-politikaren gomendio gisa gaineratzen du itundutako tributuak toki-erakundearen artean banatzeko irizpideek gastu korrante globaleko politika ekitatibo eta solidarioa bideratzea; eta politika horiek finkatzea, gutxienez ondoko hauei erreparatuta: biztanleria, ahalegin fiskala eta, hala badagokio, lurralde historiko bakoitzeko toki-erakundearen antolamendu-berezitasuna.

Arabako kontzejuak eta kuadrillak, Gasteizkoa izan ezik, sartu dira banaketa-ereduan. Kontzejuak oinarritzko tartean parte hartzen dute, biztanlegune bakoitzean tokiko zerbitzu publiko jakin batzuk ematearen arabera (ura hartzea, gidatzea, kloratzea eta banatzea, saneamendua, argiteria, hilerria, gizarte-zentroa, hondakinen bilketa, eskualde-eskolak, mediku-kontsultategiak). Kuadrillek, alde batetik, esleipen finkoa jasotzen dute, eta, bestetik, zerbitzu jakin batzuk ematetik eratorritakoa (animazio soziokulturala, sustapen ekonomikoa eta enplegua eta aholkularitza teknikoa hirigintzan eta kultura-ondarean, ingurumenean, berdintasunean, euskaran eta herritarren parte-hartzean), eta, bestetik, oinarritzko tartean parte hartzeari dagokion zenbatekoa, ematen dituzten tokiko zerbitzu publikoen arabera.

Toki finantzaketarako baldintzarik gabeko foru funtsak banatzeko irizpideetan hainbat aldaketa egin dira. Batetik, 2022tik aurrera, Araban, non tarte osagarriari udal eremuan euskara sustatzeko eta planifikatzeko funtsaren zenbatekoa gehitzen zaion, Ekarpenei buruzko 4/2021 Legean ezarritakoaren arabera. Eta bestetik, 2025etik aurrera, Gipuzkoan, non 1.100 biztanle arteko udalerriek jaso behar duten zati finkoari (%1,2) dagokion banaketa irizpidea aldatu den.

Gizarte-zerbitzuen baldintzarik gabeko funtsei dagokienez, hauek dira banatzeko irizpideak:

- a) Arabako gizarte zerbitzuen zorroaren funtsa. Funtsaren zatirik handiena Vitoria-Gasteizko udalerrira bideratzen da, eta gainerakoa Foru Aldundira, azken horrek kudeatzen dituelako gainerako udalerrietako gizarte-zerbitzuak, ordezkaritza-erregimenean.
- b) Bizkaiko gizarte zerbitzuak udalak finantzatzeko foru funtsa. I., II. eta III. mailako mendetasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko udalek egiten duten ahaleginaren arabera banatzen da, baita mendekotasun-arriskua justifikatzen duten 23. eta 24. mailen arabera ere.

Gizarte zerbitzuen udal finantzaketarako foru funts horretaz gain, gizarte zerbitzuak finantzatzeko beste foru funts bat eratu da Bizkaian, baina azken hori, lehenengoa ez bezala, ez da udalek zerga itunduetan duten partaidetza-ereduaren parte, eta sortutako gastu errearen arabera banatzen da. Haren zuzkidura %0,184koa da Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuko diru-sarreraren 1. kapitulutik 8.era bitartekoetan, gehi Bizkaiko Lurralde Historikoak gutxieneko maila eta autonomia-sistemaren babes-maila adostua finantzatzeko aurrekontu-zuzkiduretan duen partaidetzaren %15. Gastu erreala kuantifikatzeko, kontzeptu horiek formula honen bidez kalkulatzeko dira: benetako gastua = gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze plana + etxeko laguntza + gizarte zerbitzuetako langileak - adinekoen egoitzetan sartzea.

Foru-funtsak banatzeko irizpideen laburpen-taula:

ARABA A) TEFFF (%36,66 BE) 1. Vitoria-Gasteizko Gizarte Laguntza (gutxi gorabehera TEFFFren %1,15) 2. Kuadrillak: parte-hartze baldintzatua (gutxi gorabehera %0,79 TEFFF) 3. GAINERAKOAK 3.1.- Oinarizko tartea %27 (zerbitzuak ematea) - Kuadrillak (TEFFFren %0,91) - Kontzejuak (TEFFFren %1,94) - Udalak (TEFFFren % 23,76) 3.2.- TARTE OSAGARRIA: %73 (+ euskara-4/2021 Legea). 3.2.1.- Finkoa (21.035,4 euro udalerri bakoitzeko) 3.2.2.- Biztanleria (%59) 3.2.3.- Ahalegin Fiskala (%5) 3.2.4.- 1.000 biztanle baino gehiago (%12,25) 3.2.5.- 5.000 biztanle baino gehiago (%9,5) 3.2.6.- 15.000 biztanle baino gehiago (%9,25) 3.2.7.- 50.000 biztanle (%5) ARABA B) GIZARTE ZERBITZUEN ZORROKO FUNTSA (%0,43 BE) Vitoria-Gasteiz eta Aldundia (kudeaketa delegatuaren bidez)	BIZKAIA A) UDALKUTXA (%39,29 BE) 1. Aurreikuspenak (%0,75) 2. Eudel (%0,15) 3. Bilbo (kopuru finkoa) 4. GAINERAKOAK 4.1.- Finkoa (81.137 € udalerri) 4.2.- Biztanleria (% 0) 4.3.- Ahalegin Fiskala (%13) 4.4.- Berezitasunak (%7): 4.4.1. -Hondartzak (%4) 4.4.2.- Langabezia (%18) 4.4.3.-Sakabanaketa (%18) 4.4.4.- Eskola-unitateak (%60) BIZKAIA B) GIZARTE ZERBITZUEN FUNTSA (%0,37 BE) I., II. eta III. graduen mendeko pertsonak, eta mendekotasun-arriskua justifikatzen duten 23. eta 24. mailak	GIPUZKOA UFFF (%39,96 EB) 1. %0,15 Eudel 2. GAINERAKOAK (%99,85 UFFF): 2.1.- Finkoa (%1,2), zati berdinetan, 1100 biztanle arteko udalerrien artean: 2.2- Biztanleria (%90) 2.3.- Donostia (%2,15) 2.4.- Udalerriaren errenta (%3) 2.5.- Ahalegin fiskala (%3,5)
---	---	--

1.18.- BALDINTZAPEKO TOKI-FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAK

Ekarpenen 4/2021 Legeak aukera eman zuen, finantzaketa orokorraz gain, zerga itunduetako tokiko partaidetzaren zati bat inbertsio-plan espezifikotara bideratzeko (finantzaketa baldintzatua).

Araba da zerga itunduetan tokiko partaidetza horren zati bat finantzaketa baldintzatuko plan horietara bideratzen duen lurralde bakarra. Guztira, lurraldeko baliabide erabilgarrien ehuneko 2,68 da, eta ehuneko 2,52 OZFPri dagokio, eta ehuneko 0,34, berriz, auzo-harremanak (auzolan, beredak) sustatzeko eta obra txikiak egiteko ekimenen laguntza-programei.

1.19.- UDAL FINANTZAKETAREN ARLOKO BERME SISTEMA INSTITUZIONALA

ETEL lege integral bat da, tokiko autonomiaren bi alderdi substantiboak jasotzen dituena: eskumenak eta finantzaketa. Eredu horrekin bat etorritik, bere bermerako, bi elementu horietan oinarritzen den sistema instituzional bat ezarri zuen. Tokiko finantzaketaren eremuari dagokionez, udal ordezkariak honako organo hauen erabakietan parte hartzean gauzatzen da sistema hori:

- a) Herri Dirubideen Euskal Kontseilua
- b) Euskadiko Zergak Koordinaziorako Organoa
- c) Finantzen lurralde kontseiluak

1.20.- HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA

Guztira bederatzi kidek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzak izendatutako hiru kide (erakunde horrek hartuko du kontseiluaren lehendakaritza), foru aldundiek izendatutako kide bana eta lehendakariak izendatutako hiru udal ordezkari, EUDELe proposatuta. Udal-ordezkaritza izendatzerakoan, lehentasuna emango zaie lurralde- eta genero-irizpideei, baita tamaina desberdinetako udalerrien presentzia zaintzeari ere; hala, udal ordezkarien heren bat, hau da, bat, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako hautetsi bat izango da.

Udalerriek HDEKn parte hartzeko ereduak erabakiak hartzeko araubide bikoitzari erantzuten dio: hiru erakunde-mailek (autonomikoa, forala eta udalerrikoa) botoa emateko eskubidea duten gaiak dagozkienak; eta foru- eta udal-mailek soilik hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea duten gaiak dagozkienak. Azken horietan, maila autonomikoko erakundeek ahotsa baino ez dute. Nolanahi ere, udal ordezkariak hitz egiteko eskubidearekin ere parte ahal izango dute, eskubide osoko kide gisa parte hartzeko berariaz onartzen ez zaien gainon gaitan (LHLren 28.10 artikulua).

- a) Hiru erakunde mailei erreserbatutako gaiak

Erabakiak hartzeko, gehiengo osoa behar da (bost boto), eta, nolanahi ere, maila bakoitzeko erakundeetako ordezkari batek parte hartu behar du beti honako gai hauen eztabaidan:

- 1.- Zorpetze-, aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea (ETELen 115. artikulua)
- 2.- Plan ekonomiko finantzarioak (ETELen 116. artikulua)

HDEK-k bi funtsezko alderdiren gaineko eskumenak ditu plan ekonomiko finantzarioei dagokienez:

- a) Lehenengoak aipatzen du planek izan behar dituzten neurriek helburuen desbideratzearen neurrikoak izan behar dutela, eta, horretarako, HDEK-k irizpideak edo atalaseak ezar ditzake, neurrien eta desbideratzearen arteko doikuntza zehatzagoa ahalbidetzeko.
- b) Bigarrenaren arabera, berez aurrekoa osatzen duena, HDEK-k erabaki ahalko du zein diren desbideratze- atalaseak, zeinak zenbateko txikia edo ehuneko pisu murrizta egiten dutelako zorraren edo gastu publikoaren bolumenarekiko inola ere ez baitute ekarriko neurri osagarriak hartzea udalaren zerbitzu-zorroan eragingo dutenak,

edo zerbitzu publikoen kudeaketa beste erakunde batekin partekatzea beharko dutenak, edo toki-erakundeen erakunde instrumentalen antolamendu-egiturak arrazionalizatzea eskatuko dutenak.

Nahiz eta ETElen 95. artikulua, erakunde publiko instrumentalen birdimentsionamenduari buruzkoa, ez den berariaz aipatzen udal ordezkariak eskubide osoko kide gisa parte har dezaketena (hitza eta botoa) HDEKren eskumeneko gaien artean, zalantzarik gabe, haren tratamendua 116. artikuluan horretan araututako gaien berdina izatea justifikatzen dute ondoko hauek: 116. artikulua eremu materialarekin duen lotura, eta manuaren interpretazio sistematiko eta integratzailea.

3.- Eskumen propioak esleitzea (ETELen 17.3 eta 18. artikulua)

Eskumen-esleipena lege autonomiko edo foru-arau bidez egiten den kasuetan, beharrezkoa da arau-xedapenek eranskin espezifiko bat izatea, finantza-nahikotasuna ziurtatzeko behar diren baliabideen zuzkidurarekin; baita berezkozat emandako eskumenetatik eratorritako jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak zehazten dituen erregelamendu-garapena denean ere. Horrek, oro har, ez dakarkie gastu handiagorik euskal administrazio publikoei, HDEK-k horretarako baimena eman ezean.

4.- Garapen ekonomiko eta sozialerako berebiziko garrantzia duten planak eta proiektuak (ETELen 117.3. artikulua)

EAEko osoaren ekonomia eta gizartea sustatzeko eta garatzeko berebiziko garrantzia duten planak eta proiektuak finantzatzeari buruzkoa da, baldin eta horiek oso baliabide garrantzitsuak behar badituzte eta erakunde guztiei eragiten badiete.

5.- Zerga itunduetan tokiko partaidetza banatzeko irizpideak (ETELen 118. artikulua)

Toki-erakunde bakoitzari zerga itunduetan dagokion partaidetza lurralde historiko bakoitzean zehazten da, eta foru-organoen eskumena da. HDEKren esku-hartzea aipatutako banaketaren irizpideak ezartzera mugatzen da, zerga-politikaren gomendio gisa. Irizpide horiek, beraz, ez dira lotesleak eta foru-organoei baztertu ditzakete.

Irizpide horiek printzipio hauek hartu behar dituzte kontuan: finantza-nahikotasuna, arrisku partekatua, zerga-ahalegina sustatzea eta gastu arruntaren politika global bidezko eta solidarioa lortzea. Nolanahi ere, HDEK-k ezarriko ditu, gutxienez, biztanleria-irizpideak eta ahalegin fiskala.

b) Foru- eta udal erakundeen erabaki beharreko gaiak

Eskubide osoko kide gisa (hitza eta botoa) jarduten duten foru- eta udal ordezkariak erreserbatutako gaiak dira, eta autonomia-erkidegoetako ordezkariak hitz egiteko eskubidearekin jarduten dute, banaketa horizontalaren ereduari buruzko bozketan berdinketa ebatzi behar duen kasutik eratorritako salbuespenarekin.

1- Zerga itunduetan parte hartzeko gutxieneko maila (118.5. artikulua)

HDEK-k, akordio bidez, udalek zerga itunduetan izan beharreko gutxieneko partaidetza-maila ezarriko du. Erabaki hori hartzeko gehiengo osoa behar da (4 boto), indartua, gehiengo horrek gutxienez bi ordezkari izan behar baititu, hurrenez hurren, foru- eta udal esparruetakoak.

4/2021 Ekarpen Legeak baliabide erabilgarrien ehuneko 39,23ko gutxieneko partaidetza-maila ezarri zuen. Gutxieneko maila hori dagokion foru-araudian sartu beharko da, eta handitu ahal izango da foru-organo eskudunek hala erabakitzen badute.

2.-Banaketa horizontalaren eredua ekarpen-legeetan (117.5 artikulua).

ETELek, ekarpen-legeak erreformatzeko lanetan udal ordezkarien parte-hartzea bermatzeaz gain, funtsezko zeregina eman zien erabakiak hartzeko orduan, banaketa horizontalaren eredua eta lurralde bakoitzaren ekarpen-koefiziente horizontalak ezartzeko irizpideak zehazteari dagokionez, baita baliabideen banaketa horizontalean egon daitezkeen desorekak zuzentzeko beharrezko mekanismoak ezartzeari dagokionez ere.

Erabakiak hartzeko gehiengo osoa behar da (4 kide), baina ez indartua (bi boto erakunde-maila bakoitzetik). Berdinketa gertatuz gero baino ez da aurreikusten boto-eskubidea duen ordezkari-tza autonomikoaren parte-hartzea, eta azken hori erabakitzailea izango da.

1.21.- EUSKADIKO ZERGA KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

Udal ordezkariak parte hartzen dute Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoan baina soilik toki-zergak aztertu behar direnerako, hau da Zergapideen, elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko 3/89 Legearen 7. eta 11. artikuluetan aurrikusitako kasuetarako.

Udalen ordezkariak hiru dira, autonomia- eta foru-ordezkariak bezala, eta lehendakariak izendatu behar ditu, ezarpen handieneko euskal udalen elkarteak (EUDEL) proposatuta. Erabakiak gehiengo osoz hartu behar dira, baldin eta gehiengo horretan gutxienez maila instituzional bakoitzeko (autonomikoa, forala eta udalekoa) ordezkari bat badago.

1.22.- FINANTZEN LURRALDE KONTSEILUAK

ETELek (seigarren xedapen gehigarria) udalerrien partaidetzaren bermea ezarri zuen, hiru lurraldeetako finantzen lurralde-kontseiluetan proposatutako tokiko ordezkarien bidez tributu itunduak eta itunduta ez daudenak banatzeko irizpideak zehazte aldera. Horretarako EUDELek ordezkariak proposatzen ditu eta horietako bat 5.000 biztanletik beherakoa izan behar da.

Autoantolaketa-printzipioaren arabera, foru-organoei dagokie beren erakundeak libreki antolatzea eta haien funtzionamendua arautzea (foru-nukleo ukiezina). Hori dela eta, foru-organo horiek arautu behar dituzte partaidetzako lurralde-organo horiek, haien irismena eta eginkizunak zehaztu behar dituzte, eta toki-ordezkariak erabakiak hartzerakoan izan behar duten izaera zehaztu behar dute.

Egungo lurralde-kontseiluak arau hauetan oinarritzen dira: 29/1996 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseilua eratu eta arautzekoa; 4/1996 Foru Araua, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua sortzekoa, eta 16/1994 Foru Araua, Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseilua sortzekoa

2.- UDAL AURREKONTUA¹²

2.1.- UDAL AURREKONTUA. ARAUDIA ETA EDUKIA

Toki-erakundearen sektore publikoen zorpetze-, aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea lurralde historikoetako foru-organismoek onartzen dituzten arauen bidez erregulatuko da (ETELen 115. artikulua)¹³.

Aurrekontua honela definitzen da: ekonomia- eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean toki-erakundeek egin beharreko jarduera ekonomikoaren zuzendaritza-programa osatzen duten erabakien multzo integratuaren adierazpen formal dokumentala, finantza- eta kontabilitate-terminoetan.

Honako aurrekontu hauek osatzen dituzte udalerrien aurrekontu orokorrak: erakundearen beraren aurrekontuak, haren organismo autonomo eta enpresa-erakunde publikoenak, haien mendeko sozietate publikoenak eta atxikitako partzuergoenak, baldin eta haien egintzak zuzenean edo zeharka toki-erakundearen erabakimenaren mende badaude. Erakundeari atxikitako gainerako partzuergoen aurrekontuak aurrekontu orokorrekin batera joango dira, informazio gisa.

Aurrekontu orokorrean txertatzen den aurrekontu bakoitzak honako hauek jasoko ditu:

- a) Gastuen egoera-orriak: horietan, obligazioak betetzeko behar diren kredituak sartuko dira, eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan sortutako finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintzako gerakinaren zenbatekoa, hasierako aurrekontuko gastuen egoera-orrian sartutako gastuak finantzatzera bideratua, baldintza hauek betetzen badira:
 - Hasierako aurrekontu-orekaren eskakizuna ez betetzea, eragindako baliabideekin finantzatzutako gastu bat gauzatzeko ordainketa-kredituak jarri behar direlako.
 - Ukitutako baliabideak aurreko ekitaldietan kobratu izana eta diruzaintzako gerakinean behar bezala sartuta egotea.
 - Dagokion diruzaintzako gerakina aldi horretan gauzatu beharreko aurrekontu-gastuaren zatiak finantzatu beharreko zenbatekoagatik auresuposatzea.
- b) Ekitaldian likidatu beharreko baliabide ekonomikoen zenbatespenak jasoko dituzten diru-sarreraren egoera-orriak.

Era berean, aurrekontua betearazteko araua jasoko du. Arau horretan, aurrekontu-arloko xedapen orokorrak erakundearen beraren antolaketara eta egoeretara egokituko dira, baita behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren beste batzuk ere. Eta gastuak eta baliabideen bilketa hobeto egiteko egoki edo komenigarri iritzitako prebentzio-neurri guztiak ezarriko dira.

¹² "Udal Aurrekontua" izeneko atal hau egiteko, honako argitalpen hauek hartu dira erreferentziatzat: "Euskadiko Toki Ogasunen Eskuliburua" (ISBN: 978-84-777-599-7) eta "Euskadiko Toki Ogasunen Eskuliburuaren Eranskina" (ISBN: 978-84-777-643-7). Argitalpen horiek IVApek argitaratu ditu, eta egilea Iñaki Galdeano Larizgoitia da.

¹³ 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa; 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa; eta 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.

2.2.- AURREKONTU EGITURA: DIRU SARRERAK

Udalerriek nahitaez egin behar dituzte aurrekontuak, diru-sarreraren eta gastuen izaera ekonomikoa eta horiekin lortu nahi diren xedeak eta helburuak kontuan hartuta.

Diru-sarrerak izaera ekonomikoaren arabera sailkatuko dira nahitaez. Aukeran, egitura organikoaren arabera ere egin ahal izango dute, antolaketa-erregelamendu edo dekretuen arabera.

Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoak hiru maila izango ditu: kapitulua, artikulua eta kontzeptua.

Kodea itxia eta nahitaezkoa da kapitulu eta artikuluen kasuan. Kontzeptuari eta azpikontzeptuari dagokienez, irekia da, eta maila horietan beharrezkotzat jotzen diren epigrafe guztiak sor ditzake tokiko erakundeak.

Honako eragiketa hauek bereizten dira: eragiketa arruntak (1. kapitulutik 5.era), kapital eragiketak (6. eta 7. kapituluak) eta finantza eragiketak (8. eta 9. kapituluak).

	DIRU SARRERAK
ERAGIKETA ARRUNTAK	1. kapitulua: Zerga zuzenak 2. kapitulua: Zeharkako zergak 3. kapitulua: Tasak eta bestelako diru-sarrera arruntak 4. kapitulua: Transferentzia arruntak 5. kapitulua: Ondareari dagozkion diru-sarrerak
KAPITAL ERAGIKETAK	6. kapitulua: Inbertsioak besterentzea 7. kapitulua: Transferentziak
FINANTZA ERAGIKETAK	8. kapitulua: Aktibo finantzarioak 9. kapitulua: Pasibo finantzarioak

2.3.- AURREKONTU EGITURA: GASTUAK

Toki-erakundeek aurrekontuetako gastuen egoera-orriak nahitaez sailkatuko dira egitura ekonomikoaren eta programa-taldearen arabera. Aukeran, unitate organikoaren arabera ere sailka daiteke, antolaketa-erregelamendu edo dekretuen arabera.

Sailkapen ekonomikoak galdera honi erantzuten dio: zertan gastatzen da? (langileak, erosketak, maileguren interesak, alokairuak, diru-laguntzak, inbertsioak, etab.)

Aurrekontu-aplikazioa, zeinaren adierazpen zifratua aurrekontu-kreditua baita, programen araberrako egituren eta egitura ekonomikoaren baturak definituko du gutxienez, programa-talde eta kontzeptu mailan, hurrenez hurren.

a.) Sailkapen ekonomikoa

Gastuen sailkapen ekonomikoak hiru maila izango ditu (3 digitu), lehenengoa kapituluari buruzkoa, bigarrena artikuluari buruzkoa eta hirugarrena kontzeptuari

buruzkoa. Kodea itxia eta nahitaezkoa da kapitulu eta artikuluen kasuan. kontzeptuari eta azpikontzeptuari dagokienez, irekitzat jotzen da.

Honako eragiketa hauek bereizten dira: eragiketa arruntak (1. kapitulutik 5.era), kapital eragiketak (6. eta 7. kapituluak) eta finantza eragiketak (8. eta 9. kapituluak).

	GASTUAK
ERAGIKETA ARRUNTAK	1. kapituluak: Langile-gastuak 2. kapituluak. gastu arruntak eta zerbitzuak 3. kapituluak Finantza-gastuak 4. kapituluak Transferentzia arruntak 5. kapituluak Kreditu orokorra eta beste ezuste batzuk
KAPITAL ERAGIKETAK	6. kapituluak Benetako inbertsioak 7. kapituluak. Kapital-transferentziak
FINANTZA ERAGIKETAK	8. kapituluak Aktibo finantzarioak 9. kapituluak Pasibo finantzarioak

b) Programen arabera sailkapena (funtzionala). Zertarako gastatzen den galderari erantzuten dio: (segurtasunean, hirigintzan, ingurumenean, kirolean, kulturean, administrazio orokorrean, etab.).

Programen arabera sailkapenak honako maila hauek izango ditu: lehena, gastu-arloari buruzkoa; bigarrena, gastu-politikari buruzkoa; hirugarrena, programa-taldeei buruzkoa. Azken horiek programatan banatuko dira, baina sailkapen hori maila gehiagotan zabaltzeko ahal izango da, azpi-programei dagokienez, hurrenez hurren. Kodifikazio hau itxia eta nahitaezkoa da toki-entitate guztientzat, dagokion lurraldeko foru dekretuan zehazten diren gastu-arlo, gastu-politika, programa-talde eta programa-mailatan.

Programen arabera sailkapenean sei gastu-arlo egituratzen dira:

1. gastu-arloa.- Oinarritzko zerbitzu publikoak.

Arlo honetan sartzen dira udalerriek, beren kabuz edo elkartuta, indarrean dagoen araudiaren arabera nahitaez eman behar dituzten oinarritzko zerbitzu publikoak eragindako gastu guztiak.

2. gastu-arloa. Babes eta sustapen sozialeko jarduketak.

Arlo edo talde honetan sartzen dira aurreikuspen-araubidea osatzen duten gastu eta transferentzia guztiak; funtzionarioen pentsioak, ongintza- eta laguntza-izaerako arretak; beharrian bereziak dituzten taldeentzako ematea, hala nola gazteak, adinekoak, desgaituak, enplegua sustatzeko neurriak

3. gastu-arloa.- Lehenetsutako ondasun publikoen ekoizpena.

Arlo edo talde honetan sartzen dira tokiko erakundeak osasunarekin, hezkuntzarekin, kulturarekin, aisialdiarekin, kirolarekin eta, oro har, bizi-kalitatea handitzeko edo hobetzeko egiten dituen gastu guztiak.

4. gastu-arloa.- Jarduketa ekonomikoak.

Arlo honetan sartzen dira jarduera ekonomikoaren sektoreen potentziala garatzeko joera duten jardueren, zerbitzuen eta transferentzien gastuak. Honako gastu hauek ere sartuko dira: oinarrizko azpiegiturak eta garraioak; nekazaritza-azpiegiturak; komunikazioak; ikerketa, garapena eta berrikuntza.

9. gastu-arloa.- Jarduketa orokorrak.

Arlo honetan sartzen dira, oro har, toki-erakundeari eragiten dioten jarduerari dagozkien gastuak, hau da, gobernu-funtzioak edo administrazio-laguntza eta erakunde osoari euskarri logikoa eta teknikoa ematea.

Erakundearen gastu orokorrak jasoko ditu, programen arabera sailkapen honetan aurreikusitako beste arlo bati zuzenean egotzi edo aplikatu ezin zaizkionak. Arlo honetan sartuko dira programen arabera sailkapen honetako beste epigrafe bati aplikatu ezin zaizkion transferentzia orokorrak, bestela dagokion gastu-politika espezifikoan egotziko baitira.

0. Gastu-arloa.- Zor publikoa.

Zor publikoaren eta antzeko beste finantza-eragiketen interes- eta amortizazio-gastuak hartzen ditu, horiek formalizatzeko sortzen dituen gastuak izan ezik. Arlo horri egotziko zaizkio kontratatutako kreditu-eragiketen ondoriozko toki-erakundearen finantza-kargari, amortizazioari eta interesei erantzuteko gastuak. Kontratuak formalizatzeko gastuak 93. gastu-politikara eramango dira, 934 programa-multzora.

c) Sailkapen organikoa. Nork gastatzen du? galderari erantzuten dio (alkatetza, zinegotzigoak, etab.).

Aukeran, tokiko erakundeak hala erabakitzen badu, gastuak unitate organikoen arabera ere sailka daitezke, erakundearen antolamendu-egituraren arabera, erakundearen antolamendu-erregelamendu edo -dekretuen arabera.

2.4.- AURREKONTU EGONKORTASUNAREN, FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN ETA GASTU ARAUAREN PRINTZIBIOAK

Foru-erakundeek foru-arau espezifikoetan arautu dituzte toki-erakundearen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari dagozkien gaiak¹⁴.

Toki-eremuan, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren ondorioz, toki-erakundeek aurrekontu-oreka izan beharko dute, eta hori honela zehazten da:

Diru-sarreraren 1. kapitulutik 7.era bitartekoen BATURA > (Gastuen 1. kapitulutik 7.era bitartekoen BATURA, +/- SEC doikuntzak).

Kalkulua aurrekontu orokorrean sartuta dauden eta merkatu-operadore ez diren erakunde guztien termino finkatuetan egingo da, "Administrazio Publikoak" sektorean.

¹⁴ Arabako abenduaren 13ko 8/2013 Foru Araua, Bizkaiko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Araua eta Gipuzkoako otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren helburua da zorpetze publikorako sarbidea mugatzea eta administrazio publikoen zorpetze garbia murriztea.

Finantza-iraunkortasuna egungo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko gaitasunarekin identifikatzen da, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza-zorraren berankortasunaren mugen barruan. Finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzeko, finantza-eragiketek finantza-zuhertasunaren printzipioa bete beharko dute, foru-erregulazioaren arabera.

Gastu-arauak esan nahi du gastu konputagarriaren aldaketak, zorraren interesak eta Europar Batasunetik, beste administrazio publiko batzuetatik edo hirigintza-kudeaketatik datozen funts finalistekin finantzatzutako gastuaren zatia kenduta, ezin izango duela gaitasuna HDEKn adosten den erreferentzia-tasa. Ondorio horietarako, kalkulua egiteko, kontuan hartu behar dira arau-aldaketen ondoriozko bilketa-inpaktu positiboak eta negatiboak.

Foru-aldundiek (Arabak: batzar nagusiek) finkatzen dituzte toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren urteko helburuak, HDEKren akordioaren arabera, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartzen dituenak ikusita.

Onartutako foru-araudian adierazten da aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren urteko helburuak edo gastu-araua bete egin behar direla, bai toki-aurrekontuak egitean, bai onartzean eta gauzatzean. Hori betetzen ez bada, plan ekonomiko finantzario bat onartu beharko da. Plan hori toki-erakundea osatzen duten erakundearen plan indibidualak bateratuta lortuko da. Plan hori onartzea foru-aldundien eskumena izango da 75.000 biztanle edo gehiagoko udalerriak badira, edo udalbatzarena gainerako udalerrien kasuan. Helburuak betetzeko ekonomia- eta finantza-planaren denbora-epea uneko urtekoa eta hurrengo urtekoa izango da.

Foru-araudiak murriztea ahalbidetzen duten hainbat neurri sartu ditu, bai plan ekonomiko finantzarioak formulatzeko betebeharrari dagokionez, bai diruzaintzako gerakin positiboak erabilera orokorrerako erabiltzeari dagokionez. Hala, kasu jakin batzuetan, baldintza jakin batzuk betetzen badira, plan ekonomiko finantzarioaren onarpenaren ordean, osoko bilkurari kontu-hartzailetzaren txosten bat jakinaraziko zaio, edo osoko bilkurari jakinarazpen bat egingo zaio, kontu-hartzailetzak sinatuta.

Diruzaintzako gerakina gastu orokorrerarako edo aurrekontu superabita erabiltzeari dagokionez, Arabako eta Gipuzkoako foru-arauetan arau orokor gisa ezartzen da zor bizia murrizteko edo zorpetze-eragiketa berriak saihesteko erabiliko dela.

Hala ere, bi kasuetan salbuespen jakin batzuk onartzen dira, hala nola kreditu-gerakinak gehitzeko finantzaketa eta, zorraren helburua betetzen bada, kreditu gehigarriak finantzatu ahal izango ditu (Arabak) edo, baldintza jakin batzuk bete ondoren eta ordena horretan, lehenik eta behin, aurrekontuan aplikatu gabe dauden obligazioei erantzuteko, bigarrenik, finantzen aldetik jasagarriak diren inbertsioak finantzatzeko, baldin eta defizitik eragiten ez badute eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako gehieneko ordainketa-epea gaitasuna ez badu, eta, azkenik, zorpetze-eragiketa berriak saihesteko (Gipuzkoa).

Gastu-arauren arloko erregulazioa, aurreikusitakoak baino handiagoak diren diru-sarrerak ez-finalisten xedeari dagokionez, desberdina da Bizkaian eta beste bi lurraldeetan, azken horien edukia berdina baita.

Bizkaiko foru arauaren arabera, diruzaintzako premiarik ez duten eta epe luzeko zor-eragiketen kapital bizia duten toki-erakundeek zorra murrizteko edo zorpetze-eragiketa berriak saihesteko erabili beharko dituzte, erregelamenduz ezartzen den ehunekoan, eta gainerakoa egokitzat jotzen dituzten aurrekontu-aldaketak finantzatzeko erabili ahal izango dute. Gauza bera gertatzen da ekitaldia finantzaketa-ahalmenarekin ixten dutenean, erregelamenduz zehazten den zenbatekoa zorra murrizteko erabili ondoren.

Arlo horretan, Arabako eta Gipuzkoako foru-arauek xedatzen dutenez, diru-sarrera berri edo handiagoak, finalista ez direnak, zor bizia murrizteko edo zorpetze-eragiketa berriak saihesteko erabili beharko dira, betiere aurrekontua finantzatzeko diru-sarreraren maila egokia ziurtatzen bada. Hala ere, zuhurtasunagatik edo diruzaintzako beharrengatik, diru-sarrera berrien aplikazio hori atzeratu egin ahal izango da, ekitaldiaren likidaziora arte.

Defizit publikoaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren arloko zerga-arauek eten egin dira, salbuespen gisa, 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietarako, administrazio guztiei, baita tokikoei ere, COVID-19aren pandemiak eragindako ondorioen aurka borrokatzeko behar besteko malgutasuna emateko

.Arau fiskalak eteteak berekin ekarri zuen toki-entitateek diru-sarrera handienak eta diruzaintzako gerakina zorra murrizteko erabiltzeko duten betebeharra etetea, baita urte horietan indarrean zeuden plan ekonomiko finantzarioen indarraldia galtzea ere, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari dagozkion betebeharrak ez betetzearen ondorioz onartutakoak izan ezik.

Europako Batzordeak 2023ko martxoaren 8an Kontseiluari egindako komunikazioan, 5. apartatuan, 2023aren amaieratik aurrera babes-klausula orokorra kentzea ezarri zen, eta, beraz, Administrazio Publikoei aplikatu beharreko arau fiskalak 2024an berraktibatuta geratu ziren, eta horiek betetzera behartuta geratu ziren¹⁵.

2.5.- TOKIKO ZORPETZEAREN ARAUBIDEA

Tokiko zorpetzeari dagokionez, ETELek gaineratzen du toki-erakundeek urtebetetik gorako eperako kreditu-eragiketak ituntzea lurralde historikoekin eta EAEko zorpetze-politikarekin koordinatu eta harmonizatu beharko dela.

Foru-aldundien eskumena da bai toki-erakundeen zor publikoaren bolumena zehaztea, bai itundu ditzaketen kreditu-eragiketak (epe luzekoak eta diruzaintzakoak) eta toki-erakundeek eman ditzaketen abalak edo bermeak arautzea.

Toki-ogasunen foru-araudian ezartzen da toki-zorpetzearen araubidearen erregulazioa, eta bertan bereizten dira epe laburreko kreditu-eragiketak eta epe luzeko eragiketak, eta, azken horien barruan, foru-baimena behar dutenak eta foru-txostena egitea nahikoa dutenak.

¹⁵ Ministro Kontseiluaren 2024ko otsailaren 13ko Erabakiaren bidez, arau hauek ezartzen dira tokiko azpisektorerako:

- a) Aurrekontu-egonkortasuneko helburuak: 2024rako % 0,2, 2025erako % 0,1 eta 2026rako % 0,2
- b) Zor publikoaren helburuak: % 1,4 2024rako; % 1,3 2025erako eta % 1,3 2026rako.
- c) Gastu-araua: % 2,6 2024rako, % 2,7 2025erako eta % 2,8 2026rako. 2024ko gastuaren araua (% 2,6) 2023ko aurrekontu-likidazioaren gastu konputagarriari aplikatzen zaio

Epe laburreko kreditu-eragiketak gehienez ere urtebeterako hitzartzen dira diruzaintzako aldi baterako beharrei erantzuteko, eta, guztira, ezin izango dira aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik likidatutako diru-sarreraren ehuneko 30 baino gehiago izan.

Epe luzerako kreditu-eragiketei dagokienez, Arabako eta Bizkaiko foru-araudiaren hasierako edukia aldatu egin da, eta gaur egun Estatuko erregulaziotik eratorritakoaren antzekoa da.

Bi lurraldeetan, foru-baimena behar da epe luzeko kreditu-eragiketa berriak ituntzeko. a) aurrezki garbia negatiboa bada, b) epe laburreko eta luzeko kreditu-eragiketen kapital biziaren bolumen osoa likidatutako diru-sarrera arrunten ehuneko 110 baino handiagoa bada. Era berean, eragiketa berriak hitzartzeko nahitaezko foru-txosten ez-loteslea beharko da kredituaren zenbatekoa ehuneko 5 (Araba) edo ehuneko 10 (Bizkaia) baino handiagoa bada.

Gainera, aurrezki garbia negatiboa denean, osoko bilkurak finantza-saneamenduko plan bat onartu beharko du, gehienez ere hiru urteko epean egin beharrekoa.

75.000 biztanletik gorako Bizkaiko toki-erakundeek aukera izango dute foru-baimen horren orde zurrekontuak finkatzeko agertoki bat aurkezteko.

Gipuzkoak, bere aldetik, eutsi egiten dio foru-arauari emandako lehenengo idazketari. Horren arabera, ez da foru-baimenik beharko kreditu-eragiketarik likidatutako baliabideen % 5 gaituzten ez bada edo lankidetzak ekonomikoko plan eta programetan sartutako obra eta zerbitzuak finantzatzeko erabiltzen bada. Baimena beharrezkoa ez izateko, kasu guztietan, urteko finantza-kargak ez du eragiketa arruntengatik baliabideen % 25 gaitu behar.

2.6.- PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOAK

Toki-erakunde batek bere aurrekontuak egin, onartu edo gauzatzen baditu aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastu-araua bete gabe, plan ekonomiko finantzario bat egin beharko du, aipatutako helburuak edo gastu-araua betetzen direla bermatzeko.

ETELen 116. artikulua foru-erakundea aitortu zuen arlo horretan, foru-diputazioei ematen dizkien finantza-tutoretzako ahalmenen arabera, udalerriek edo, hala badagokio, foru-aldundiek onartzen dituzten plan ekonomiko finantzarioen laguntza teknikoaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren arloan eskuduntzak ematen dizkielako, estatu, foru edo ETELeko araudian aurreikusitako baldintzetan.

HDEK-k zor-, defizit- edo gastu-arauen helburuekiko desbideratze-atalase edo -irizpide batzuk ezar ditzakeela aurreikusten du, eta horiek plan ekonomiko finantzarioetan kontuan hartu beharko dira desbideratze-kausak identifikatzean eta helburu horiek betetzera itzultzea ahalbidetuko duten neurriak hartzean. Ondorio horietarako, desbideratze-atalaseak ere adostu ditzake, zenbateko mugatua dutelako edo aurrekontu-bolumenaren, zorraren edo gastu publikoaren gainean portzentajezko pisu xikia dutelako, zerbitzu-zorroari eragiten dioten neurri gehigarriak hartzea ez dakartenak (ETELen 16.6 artikulua -klausula unibertsala-), kudeaketa partekatua egitera behartzen badute edo tokiko erakundeen edo erakunde instrumentalaren antolamendu-egiturak arrazionalizatzea eskatzen badute.

Planen edukia lurralde bakoitzeko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko foru-araudian ezartzen da.

2.7.- UDAL AURREKONTUA ONARTZEKO PROZEDURA

Toki-erakundeen aurrekontuei buruzko foru-araudiaren arabera, aurrekontuak edo horien aldaketak onartzeko prozedura (kreditu gehigarriak, alkatearen eskumeneko kasuetan izan ezik, aurrekontua betearazteko arauaren arabera) honako hau da:

a) Prestakuntza eta hasierako onarpena

Alkatetzari dagokio aurrekontu orokorra osatzea¹⁶, eta, kontu-hartzailtzak txostena egin ondoren, urriaren 15a baino lehen bidali beharko zaio osoko bilkurari, eranskin eta dokumentazio guztiekin batera, hasierako onarpena, zuzenketa edo itzulketa egin dezan. Horretarako, erakunde autonomoek, enpresa-entitate publikoek, atxikitako partzuergoek eta sozietate publikoek foru-araudiak eskatzen duen dokumentazioa bidali beharko diote Alkateari urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen.

Osoko bilkurara bidali aurretik, dagokion informazio batzordeak irizpena eman beharko du (salbu eta 5.000 biztanletik beherako udalerrriak badira eta informazio-batzorderik ez badute).

Onartzeko erabakia bakarra izango da, eta aurrekontu orokorra osatzen duten aurrekontuak zehaztu beharko ditu. Aurrekontu horietako bat ere ezin izango da bereizita onartu.

Aurrekontu orokorra osatzen duten aurrekontuetako bakoitza hasierako defizitik gabe onartu beharko da. Nolanahi ere, eragiketa arruntengatiko sarrerek izaera bereko gastuak gehi zorpetzeagatiko amortizazio-gastuak izan beharko dituzte gutxienez¹⁷.

b) Jendaurrean jartzea

Aurrekontu orokorrari hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, lurraldeko aldizkari ofizialean iragarkia jarri ondoren. Epe horretan, interesdunek aurrekontua aztertu ahal izango dute, eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote osoko bilkurari edo tokiko gobernu-batzarrari, azken horrek hartu badu hasierako onespina emateko erabakia.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira interesduntzat:

- 1) Kasuan kasuko erakundearen lurraldeko biztanleek.
- 2) Zuzenean eragiten dietenak, nahiz eta erakundearen lurraldean bizi ez.
- 3) Elkargo ofizialak, ganbera ofizialak, sindikatuak, elkarteak eta lanbide-, ekonomia- eta auzo-interesak zaintzeko legez eraturako gainerako erakundeak, berezkoak dituztenen defentsan jarduten dutenean.

Aurrekontuaren aurkako erreklamazioak bakarrik aurkeztu ahal izango dira:

- 1) Toki-erakundeen aurrekontuei buruzko foru-araudian ezarritako izapideak ez betetzeagatik.

¹⁶ Hiriburuen kasuan, tokiko gobernu-batzordeari igorriko zaio, aurrekontu-proiektu gisa onar dezan.

¹⁷ Ondorio horietarako, diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako gastu arruntak ez dira zenbatuko.

2) Legezko manuairen edo beste edozein titulu legitimoren ondorioz erakundeari eska dakizkiokeen betebeharrak betetzeko behar den kreditua ez betetzeagatik.

3) A Agerikoa delako diru-sarrerak ez direla nahikoak aurrekontuan sartutako gastuei dagokienez, edo gastu horiek aurreikusitako premiei dagokienez.

c) Behin betiko onarpena

Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da, baldin eta 30 eguneko epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada; bestela, osoko bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

Behin betiko onarpena aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen egin beharko da.

d) Argitalpena

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra korporazioaren aldizkari ofizialean argitaratuko da, halakorik badu, eta aurrekontu bakoitzaren kapituluka laburtuta, lurralde historikoaren aldizkari ofizialean.

Era berean, gardentasun-araudia aplikatuz, osorik eta eguneratuta argitaratu beharko dira aurrekontuak, baita modu erraz, argi eta grafikoan ere. Partida nagusiak deskribatuta eta informazio zehatzarekin egin beharko da, ekitaldian zehar onartutako aurrekontu-aldaketak eta gauzatze-maila ezagutzeko (ETELen 57 a) artikulua).

e) Kopia bidaltzea eta jendearen eskura jartzea.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorraren kopia foru aldundiari bidaliko zaio, eta hark bidaliko die eskumena duten administrazioei. Era berean, aurrekontuaren eta haren aldaketen kopia jendearen eskura egon beharko da, informazio gisa, behin betiko onartzen denetik ekitaldia amaitu arte.

f) Errekurtsioak

Toki-aurrekontuak izaera arauemailea du, eta haren aurka ezin izango da berraztertze errekurtsorik jarri. Atzera bota nahi izatekotan, epaitegietara jo beharko da zuzenean (1029/2022 AGE, irailaren 29koa). Izan ere, 39/2015 Legearen 112.3 artikulua arabera, xedapen administratibo orokorren aurka ezin da administrazio-errekurtsorik aurkeztu.

2.8.- UDAL AURREKONTUA: IZAERA MUGATZAILEA ETA LOTESLEA. LOTURA JURIDIKOAREN MAILA

Aurrekontu-kredituek izaera mugatzailea eta loteslea dute, eta aurrekontuan baimenduta dauden helburu espezifikora soilik bideratu behar dira. Ondorioz, kreditu horien zenbatekotik gorako gastu-konpromisorik ezin izango da hartu. Horrela egin ezean, erabat deusez izango da aurrekontua.

Hala ere, kontuan hartu behar da muga hori kredituen lotura juridikoaren mailaren arabera bete behar dela, eta, beraz, kreditu baten zenbatekoa gaingitu ahal izango da, baldin eta ezarritako lotura juridikoaren maila kontuan hartuta aurreikusitako zuzkidura gaingitzen ez bada.

Urteko aurrekontua betearazteko arauan ezarriko da kredituen lotura juridikoa zein mailatan geratzen den ezarrita. Araurik egon ezean, honako hauek izango dira:

- Programa-multzoa eta kontzeptua, gastu arrunten eta kapital-gastuen, inbertsio errealen eta finantza-aktiboen aldaketen transferentziei eta diru-laguntzei dagozkien gastuetan.
- Programa-multzoa eta kapitulua, ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketei, finantza-gastuei eta finantza-pasiboen aldaketei dagozkien gastuetan; eta
- Kapitulua, langile-gastuei dagokienez.

2.9.- AURREKONTU ALDAKETAK

Aurrekontuen kudeaketari nolabaiteko malgutasuna emate aldera, toki-erakundeek aurrekontuei buruzko foru-araudiak aurrekontu-aldaketa aurreikusten du modu orokorrean. Haren helburuak ondoko hauek dira: onartutako aurrekontuaren aurreikuspenak ekitaldian zehar sortzen ari diren aurreikusi gabeko jardueretatik eratorritako behar berrietara egokitu

Aurrekontu aldaketak:

TIPOLOGIA	DEFINIZIOA	ORGANO ESKUDUNA	
a) Onartutako aurrekontuaren zenbatekoa ez dute		ALKATETZA	OSOKO BILKURA
KREDITU-TRANSFERENTZIA	Gastuen aurrekontu-aplikazio bateko kredituaren zenbateko osoa edo zati bat lotura juridikoko maila desberdineko beste aplikazio batera eramatea. Aurrekontu-aplikazio berriak sor daitezke.	1) Programen talde beraren artean (3 digitu), inbertsioak gutxitzen direnean izan ezik 2) Programa-talde desberdinen artean, jatorrizko eta xedeko programa-taldeetan egindako aldaketen aldaketa metatuak ez badu gainditzen aurreikusitako hasierako kontsignazioen% 25, eta inbertsio errealetarako kontsignazioak gutxitzen ez badira.	Gainerako kasuak
b) Onartutako aurrekontuaren zenbatekoa aldatzen			
KREDITUAK GAITZEA	Aurrekontuko kreditu berriak sortzea eta/edo daudenak handitzea dakar, oro har zergazkoak ez diren eta hasieran aurreikusi ez ziren diru-sarrera jakin batzuk sortzearen ondorioz.	Diru-sarrera finalistak	Gainerako kasuak
KREDITU-GERAKINAK SARTZEA	Indarrean dagoen aurrekontuko kredituen gehikuntza, aurreko ekitaldiko kreditu-gerakinak sartu izanaren ondorioz (ekainaren 30a baino lehen)	Beti	
KREDITU GEHIGARRIA	Premia larriko gastuei egiten diete erreferentzia, eta gastu horietan ezin da atzerapenik egin, eta aurrekontuan emandako kreditua ez da nahikoa, edo ez dago halakorik.	Aurrekontua Betearazteko Arauan berariaz esleitzen bada: urtean metatuta, ez dira aurrekontuaren hasierako kredituen% 5 baino gehiago.	Gainerako kasuak
BALIOGABETZETIKO BAJAK	Aurrekontuaren aplikazio bati esleitutako kredituaren murrizketa osoa edo partziala honako kasu hauetan: a) Diruzaintzako gerakin negatiboak, b) kreditu gehigarriak eta c) Osoko Bilkuraren erabakiak betearaztea.		Beti
HTZARMENEN ARAUBIDEA	Lehendik dauden programa-taldeetako kredituak gehitzea, edo berriak sortzea, inbertsio-proiektuak batera egiteko beste administrazio publiko batzuekin sinatutako hitzarmenen ondorioz hasieran aurreikusitakoez bestelako funts gehigarriak jasotzeagatik.	Beti	

ahal izatea, aurrekontu-kalkuluekiko desbideratzeak eta zehaztasun ezak zuzentzea, aurreko ekitaldian hartutako konpromisoak aurrekontuan sartzea, etab.

Aurrekontuak ezin izango du defizitik izan ekitaldian zehar. Ondorioz, aurrekontu-kredituen gehikuntza orok finantza-orekaren printzipioa errespetatu beharko du, eta, beraz, onartzen den bilkura berean konpentsatu beharko da.

2.10.- SARRERAK ETA GASTUAK GAUZATZEKO FASEAK ETA ORGANO ESKUDUNAK

Toki-erakundeen aurrekontuei buruzko foru-arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

a) Aurrekontua gauzatzeko faseak

Diru-sarreraren aurrekontua fase hauetan kudeatuko da:

- 1.- Eskubidea aitortzea.
- 2.- Eskubidea kobratzea.

Eskubidea aitortzea toki-erakundearen aldeko eskubide bat onartzea da, diru-sarrera bakoitzaren araudi espezifikokoaren arabera.

Eskubidea kobratzea da diruzaintzan sartuz alde aurretik edo aldi berean aitortutako eskubide bat ordaintzeko eragiketa.

Gastuen aurrekontua fase hauetan kudeatuko da:

- 1.-Gastua egiteko baimena (A fasea).
- 2.- Gastuaren xedapena edo konpromisoa (D fasea).
- 3.- Obligazioa onartu eta likidatzea (O fasea).
- 4.- Ordainketa agintzea (P fasea).
- 5.- Ordainketa (R fasea).

Gastua baimentzea da kreditu jakin baten kargura zenbateko jakin batean edo gutxi gorabehera gastua egitea erabakitzen duen egintza, kreditu osoa edo erabilgarri dagoen aparte bat horretarako gordeta. Ez du garrantzi juridikorik hirugarrenentzat.

Gastuaren xedapena edo konpromisoa egintza bat da, zeinaren bidez erabakitzen baita, lege ezarritako izapideak bete ondoren, aurrez baimendutako gastuak egitea, zehazki zehaztutako zenbatekoarekin. Garrantzi juridikoa dakar hirugarrenen aurrean.

Obligazioa onartu eta likidatzea da gastu baimendu eta konprometitu baten ondorioz erakundearen aurka kreditu exijigarri bat dagoela deklaratzeko egintza.

Ordainketa agintzea da arduradunak toki-erakundeko diruzaintzaren aurka ordainketa-agindu bat emateko egintza, alde aurretik aitortutako zenbateko zehatz bati dagokionez. Hirugarrenen aurrean garrantzi juridikoa duen egintza da, eta udala gastu jakin eta zehatz bat egitera lotzen du, bai zenbatekoari dagokionez, bai gauzatzeko baldintzei dagokienez.

Ordainketa da ordainketa materiala egiteko egintza.

Ekitaldi bakar batean hainbat fase gauzatzeko aukera dago (AD, ADO eta ADOP).

b) Eskumenak.

- Alkateari edo osoko bilkurari dagokio gastuak baimentzea eta xedatzea, aurrekontuetan baimendutako kredituen zenbatekoaren barruan, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen eskumen-esleipenaren arabera.
- Alkatetzari dagokio lege hartutako gastu-konpromisoetatik eratorritako betebeharrak aitortzea eta likidatzea. Erakundearen osoko bilkurari dagokio obligazioak aitortzea, betiere aurrekontu-zuzkidurarik ez badago.

Aipatutako ahalmenak banatu edo eskuordetu ahal izango dira, eta aurrekontua betearazteko arauetan jaso beharko dira ekitaldi bakoitzerako.

2.11.- UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Udal aurrekontuaren likidazioak honako hau adierazten du:

- a) Gastuen aurrekontuari dagokionez, eta aurrekontu-partida bakoitzerako: hasierako kredituak, horien aldaketak eta behin betiko kredituak, baimendutako eta konprometitutako gastuak, aitortutako betebeharrak, agindutako ordainketak eta egindako ordainketak.
- b) Diru-sarreraren aurrekontuari dagokionez, eta kontzeptu bakoitzerako: hasierako aurreikuspenak, horien aldaketak eta behin betiko aurreikuspenak, aitortutako eta deuseztatutako eskubideak, baita bildutako zenbateko garbiak ere.

Aurrekontuaren likidazioaren ondorioz, honako hauek zehaztu beharko dira:

- a) Kobratzeko dauden eskubideak eta abenduaren 31n ordaintzeko dauden betebeharrak. Halaber, kobratzeke dagoen eskubidearen azterketa sartu behar da, zeina zaila edo ezinezkoa izango baita likidatu den ekitaldiaren hurrengoan kobratzea.
- b) Ekitaldiko aurrekontu-emaizta, likidatutako aurrekontuarena eta itxitako aurrekontuena bereizita.
- c) Aurrekontukoak ez diren zordunen eta hartzekodunen saldoen egoera-orria.
- d) Hartzekodunen saldo osoa, bidegabeko sarrerak itzultzeagatik.
- e) Ekitaldiko diruzaintza-kontua.
- f) Itxierako kontaketa-akta.
- g) Atxikitako diru-sarrerak dituzten gastuen finantzaketa-desbideratzeen azterketa.
- h) Diruzaintzako gerakina ekitaldi-itxieran.

Ekitaldiko aurrekontu orokorrak urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko dira, ordura arte aitortutako eskubideei eta aitortutako betebeharrei dagokienez.

Udal-erakundea osatzen duten entitateetako bakoitzak ekitaldiko aurrekontu-likidazioa aurkeztuko du. Likidazioa hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen egin behar da, foru-araudian zehaztutako dokumentazioarekin batera.

Aurrekontu orokorren likidazioa onartzea alkateari dagokio, kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta osoko bilkurari jakinarazi beharko zaio.

Toki-erakundeek beren aurrekontuen likidazioaren kopia bidaliko diote kasuan kasuko foru-aldundiari, diru-bilketa zaila edo ezinezkoa duten eskubideen irizpide erabakigarriak aplikatzearen emaitza barne, onartu eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen. Azken horrek bidaliko die eskumena duten administrazioei.

2.12.- LIKIDAZIOA DIRUZAINZAKO GERAKIN NEGATIBOAREKIN

Diruzaintzako gerakina erakundearen epe laburreko likidezia-soberakina adierazten duen finantza-magnitudea da. Diruzaintzako gerakina honakoek osatuko dute: funts likidoek, gehi kobratzeko dauden eskubideek, ken ordaintzeko dauden obligazioek, guztiak ere ekitaldiko abenduaren 31koak.

Horrela kalkulaturako diruzaintzako gerakinetik kobratzeko dauden eskubideak kenduko dira, baldin eta gauzatzea zaila edo ezinezkoa dela uste bada. Eskubide horietatik, zenbatekoa bai banan-banan bai goren mugako portzentaje finkatuz zehaztu ahal izango dira.

Kuantifikatzeko, kontuan hartu beharko dira eragindako balizko diru-sarrerak, eta murriztu egin beharko dira kobratzeko dauden eskubideak, diru-bilketa zail edo ezinezkotzat jotzen direnak.

Aurrekontua diruzaintzako gerakin negatiboarekin likidatuz gero:

- a) Osoko bilkurak, egiten den lehenengo bileran, aurrekontu berriaren gastuak murriztu beharko ditu, sortutako defizitaren adineko zenbatean.
- b) Gastuak murriztea ezinezkoa bada, kreditu-eragiketa bat egin ahal izango da, haren zenbatekoarekin, betiere foru-araudian zehaztutako baldintzak betetzen badira.
- c) Aurreko neurrietako bat ere hartu ezean, hurrengo ekitaldiko aurrekontua hasierako superabitarekin onartu beharko da, eta superabit hori ez da defizit hori baino txikiagoa izango.

Lotutako diruzaintzako gerakina, ekitaldi bateko diru-sarreraren aurrekontuaren hasierako aurreikuspen gisa ezarritakoa, behar adina murriztu beharko da baldin eta, aurreko ekitaldiko kontabilitatea erregularizatu eta itxi ondoren, hura osatzen duten finantzaketa-desbideratze positiboen benetako balioa kalkulatu, eta aribideko ekitaldiko aurrekontua egiterakoan zenbatetsitakoa baino txikiagoa bada.

Minorazio horrekin batera, bidezkoa denean, aurrekontuko beste kontzeptu batzuei esleitutako sarrera-aurreikuspenen gehikuntza erantsiko da, edo, hori ezinezkoa denean, gastuetarako onartutako kredituen murrizketa egokia, hasierako aurrekontu-orekari eusteko.

2.13.- KONTU OROKORRA

Aurrekontu-ekitaldia amaitzean, kontu orokorra osatuko da, ekonomia-, finantza-, ondare- eta aurrekontu-alderdietan egindako kudeaketa agerian uzteko.

Toki-erakundearen egoera-orriak eta kontuak alkate-lehendakariak aurkeztuko ditu, dagokion ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen. Organismo autonomoi, enpresa-entitate publikoei, sozietate publikoei eta atxikitako partzuergoei dagozkienak, toki-erakundeari bidaliko zaizkio epe berean, baldin eta haien egintzak zuzenean edo zeharka toki-erakundearen erabakimenaren mende badaude eta organo eskudunek hasieran eman eta proposatu badituzte. Era berean, taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen urteko kontuen egoera integratu eta bateratuak kontu orokorrera batu beharko dituzte.

Alkate-lehendakariak osatutako kontu orokorrari buruzko txostena egingo du kontuen batzorde bereziak maiatzaren 15a baino lehen.

Kontu orokorra, kontuen batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean. Epe horretan, interesdunek erreklamazioak, eragozpenak edo oharra aurkeztu ahal izango dituzte, eta, horiek ikusita, batzorde Bereziak beste txosten bat egingo du.

Batzorde bereziaren txostenekin eta egindako erreklamazio eta eragozpenekin batera, kontu orokorra Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, hala badagokio, uztailaren 31 baino lehen onartu ahal izan dadin.

Toki-erakundeek behar bezala onartutako edo baztertutako kontu orokorra emango diote HKEEri, kontu orokorrarekin batera, toki-erakundeko alkate-lehendakariak eta korporazioko osoko bilkurak hartutako ebazpen eta erabaki guztiak bidali beharko dira, kontu-hartzaileak formulatutako eragozpenen aurkakoak, bai eta diru-sarreraren arloan hautemandako anomalia nagusien laburpena ere, bai eta toki-korporazioak bi kasuetan aurkeztutako justifikazio-txostenak ere.

Organismo autonomoek, enpresa-entitate publikoek, sozietate publikoek eta atxikitako partzuergoek duten betebeharrak gain, haien egintzak zuzenean edo zeharka toki-erakundearen erabakimenaren mende badaude, ezartzen da, kontsolidazioaren ondorioetarako, toki-erakundeak, talde anitzeko erakundeak eta erakunde elkartuek zuzenean edo zeharka kontrolatutako erakundeak urteko kontuak bidali beharko dizkiotela toki-erakundeari, auditoretza- eta kudeaketa-txostenarekin batera, hala badagokio.

Integratzeko eta bateratzeko, dagokion lurraldeko tokiko sektore publikorako erregelamendu bidez onartzen diren urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak aplikatuko dira.

3.- DIRU-LAGUNTZAK

3.1.- ERREGULAZIOA

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duena.
- Toki-araubidearen araudia, batez ere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretua.

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena (23. eta 24. artikulua).
- 179/2029 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa (38. eta 58. artikulua).
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontuei buruzko foru araudia
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako toki ogasunei buruzko foru araudia
- Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzak
- Udalerriko aurrekontu orokorra eta aurrekontua betearazteko arauak.
- Berariazko deialdiaren oinarri arautzaileak
- Diru-laguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Euskal Legeak ez ditu toki-erakundeak bere aplikazio-eremuan sartzen.

3.2.- DIRU-LAGUNTZAREN KONTZEPTUA ETA DLOren APLIKAZIO EREMUTIK KANPO UTZITAKO KASUAK

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra diru-laguntzei ez ezik, beste laguntza publiko mota batzuei ere aplikatzen zaie, hala nola gauzazko laguntzei edo sariei, gastu publikoa eta sustapen-jarduera ere badaudenean..

Diru-laguntzat hartzen da administrazio publikoek pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diru-xedapen oro, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

- a) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- b) Diru-laguntza ematea helburu jakin bat betetzearen, proiektu bat gauzatzearen, jarduera bat egitearen, portaera berezi bat hartzearen (eginda edo garatzeke) edo egoera bat gertatzearen mende egotea. Onuradunak ezarritako betebeharrak materialak eta formalak bete beharko ditu.
- c) Finantzatutako proiektuaren, ekintzaren, jokabidearen edo egoeraren xedea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo helburu publiko bat sustatzea izatea.

Ez dira diru-laguntzat hartuko DLOren 2.4 artikuluan jasotako kasuak.

DLOren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira 4. artikuluko kasuak, eta horien artean nabarmendu behar dira, toki-eremuan duten eraginagatik, aldez aurretik onuradunak eskatu gabe ematen diren sariak eta toki-korporazioetako talde politikoei emandako diru-laguntzak.

Talde politikoak ez dira alderdi politikoak, udalen antolaketa-tresna dira zinegotzien jardunerako. Talde politikoek berariazko kontabilitatea eraman beharko dute, hala badagokio, udalbatzaren osoko bilkuraren esku jarriko duten taldearentzat gordetzen diren zenbatekoei dagokienez, baldin eta osoko bilkurak hala eskatzen badu eta gastuak udaleko kontu-hartzaileak fiskalizatuko baditu.

Hala ere, ez dira kontabilitate espezifikoaren xede izango alderdi politikoek alderdi politikoei egiten dizkieten ekarpenak, azken horien finantzaketa-araudian xedatutakoaren arabera (8/2007 Lege Organikoa, uztailaren 4koa, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoa).

3.3.- DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

Diru-laguntzak ezarri aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dira horiek aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Plan estrategikoaren edukari dagokionez, erreferentziazat har daiteke Legearen erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoa (ez oinarritzkoa).

Diru-laguntza bakoitzaren oinarri arautzaileak diru-laguntzak eman aurretik onartu beharko dira, eta diru-laguntza horiek zein plan estrategikotan sartzen diren adieraziko dute, helburuak lortzen nola laguntzen duten adieraziz. Bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa diru-laguntza berria ezartzea, baita planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hura betetzeari.

Diru-laguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileak dagokion lurraldeko aldzikari ofizialean argitaratuko dira.

Diru-laguntzen oinarri arautzaileak aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan onartu beharko dira, diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bidez edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza espezifiko baten bidez. Gutxieneko edukia DLOren 17.3 artikuluan ezarritakoa izango da.

DLOren 8.1 artikulua honela interpretatu behar da: diru-laguntzen plan estrategiko bat onartzea, edozein diru-laguntza ezarri aurretik, diru-laguntzen prozeduraren funtsezko betekizuna da. Beraz, diru-laguntzen deialdia egin duen administrazio edo erakunde publikoak betebehar hori ez betetzeak diru-laguntzaren deialdia egiteko agindua baliogabetzea dakar (AGE 543/2022, maiatzaren 9koa). Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea deuseztasuna eskubide osokoa dela, eta, beraz, arrazoi horrengatik egin daitekeela zeharkako aurkaratzea.

3.4.- TOKIKO ORGANO ESKUDUNAK

Honako hauek izango dira diru-laguntzak emateko organo eskudunak:

- a) Alkatea, diru-laguntzak gastua xedatzea dakarrenean, bere eskumeneko mugen barruan eta onartutako aurrekontuaren arabera (TAOLen 21.1 f artikulua) edo tokiko gobernu batzarra, hiru hiriburuen kasuan (TAOLen 127 g artikulua).
- b) Oso bilkura, baldin eta eman beharreko diru-laguntzak alkateari esleitutako gastu-xedapenaren mugak gainditzen baditu (TAOLen 22 e artikulua) edo tokiko gobernu batzarrari, hiru hiriburuen kasuan (TAOLen 123 h artikulua), onartutako aurrekontuaren arabera.

Gai horri buruzko ordenantzak onartzea eta aldatzea osoko bilkuraren eskumena da. Ezin da eskuordetu araubide erkideko udalerriak direnean eta biztanleria handiko udalerrien (hiru hiriburu) kasuan, dagokion osoko bilkurako batzordearen alde eskuordetu badaiteke.

3.5.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Erakunde laguntzailea da, organo emailearen izenean eta haren kontura jardunez, onuradunei fondo publikoak eman eta banatzen dizkiena, oinarri arautzaileetan hala ezartzen denean, edo diru-laguntzaren kudeaketan laguntzen duena, jasotako fondoak

aldeztatik eman eta banatu gabe. Fondo horiek ez dira inola ere beren ondarearen osagaitzat hartuko.

Erakunde laguntzaileak hartu ahal izango dira organismo eta gainerako ente publikoak, administrazio publikoak, zuzenbide publikoko organismo edo erakundeak eta TAOLen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elkarteak hala nola osorik edo nagusiki partaidetutako merkataritza-sozietateak, bai eta ezartzen diren kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona juridiko publiko edo pribatuak ere.

Ezingo dira erakunde laguntzaile izan DLOren 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.

Erakunde laguntzaileak onuradunei eman beharko dizkie fondoak, eta administrazioaren aurrean justifikatu beharko du eman zaizkiela. Halaber, fondo horiek emateko erabakigarriak diren baldintzak edo betekizunak betetzen direla egiaztatzea beharko du, baita fondo horien kudeaketa egiaztatzeke jarduketan mende jarri ere.

Administrazio-organo emailearen eta erakunde laguntzailearen arteko lankidetzahitzarmen bat formalizatuko da. Hitzarmen horrek ezin izango du lau urtetik gorako indarraldia izan, baina hitzarmena aldatzea eta luzatzea aurreikusi ahal izango da, alderdiek hala adosten badute, hitzarmena amaitu baino lehen. Luzapenen guztizko iraupena ezin izango da hasierako indarraldia baino luzeagoa izan, eta, guztira, lankidetzahitzarmenaren guztizko iraupena ezin izango da sei urtetik gorakoa izan. Hala ere, diru-laguntzaren xedea maileguak subsidiatzea denean, hitzarmenaren indarraldia luzatu ahal izango da maileguak erabat kitatu arte.

3.6.- ONURADUNAK

Onuradunak dira diru-laguntzak emateko oinarri den jarduera egin behar duten pertsona fisikoak edo juridikoak, edo diru-laguntza ematea legitimatzen duen egoera batean daudenak.

Onuradunen betebeharrak dira (DLOren 14. artikulua):

- Jarduera egitea
- Emakidaren eskakizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea.
- Egiaztapen-jarduketan mende jartzea.
- Diru-laguntza ematen duen organoari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituela diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.
- Diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.
- Merkataritzako legeriak eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriek eskatzen dituzten kontabilitate-liburuak eta gainerako dokumentuak edukitzea.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea.
- Diru-laguntza jaso dezaketen programa, jarduera, inbertsio edo jardueren finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea.

- Jasotako funtsak itzultzea, hala dagokionean.

Ezin izango dira onuradun izan DLOren 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.

Honako hauek ere ezin izango dira laguntzaren edo diru-laguntzaren onuradun izan:

- a) Sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako aldian.
- b) Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten baina halakorik ez duten enpresak, eta 50 langiletik gorako enpresak, baldin eta egiaztatzen ez badute neurriak ezarri dituztela sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dituen legeen arabera.
- c) Sexuagatik edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatik diskriminatzen duten jarduerak.

3.7.- DIRU-LAGUNTZEN DATU BASE NAZIONALA

BDNSak diru-laguntzen publizitate-sistema nazional gisa jardungo du.

Toki-erakundeek diru-laguntzei buruzko informazioa eman beharko diote BDNSri. formazio horretan, honako hauek jasoko dira gutxienez: diru-laguntza arautzen duten oinarriak, deialdia, programa eta egozten zaizkion aurrekontu-kreditua, diru-laguntzaren xedea edo helburua, onuradunen identifikazioa, emandako eta benetan jasotako diru-laguntzen zenbatekoa, itzulketen ebazpenak eta ezarritako zehapenak.

Kontu-hartzailea edo tokiko erakundeak izendatzen duen organoa arduratuko da informazioa zehatz-mehatz, osorik, epean eta ezarritako bidalketa-modua errespetatuz emateaz:

BDNSn jasotako informazioa isilpekoa izango da, eta ezin izango zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, lagapenaren xedea DLOren 20.5 artikuluan araututako kasuren bat denean izan ezik.

Kontuan izan behar da, gardentasunaren arloko betebeharren barruan, euskal toki-erakundeek beren webgune instituzionalean edo egoitza elektronikoan argitaratu behar dituztela emandako diru-laguntzak eta laguntzak, zenbatekoa, helburua edo helburua eta onuradunak adierazita (ETELen 55. artikulua).

[Ikus BDNSren webgunea.](#)

3.8.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OHIKO PROZEDURA: NORGEHIAGOKA ARAUBIDEA

Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka-araubidean izapidetuko da. Prozedura honetan, aurkeztutako eskabideak alderatzen dira, oinarri arautzaileetan eta deialdian aldeztutako balorazio-irizpideen arabera haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta balorazio handiena lortu dutenak adjudikatzeko, deialdian kreditu erabilgarriaren barruan ezarritako mugarekin..

Salbuespen gisa, eta deialdian hala aurreikusten den guztietan:

- a) Organo eskudunak gehieneko zenbateko osoa hainbanatu ahal izango du, eskaera guztiei erantzuteko.
- b) Diru-laguntzaren izaera edo helburua kontuan hartuta, norgehiagoka-araubidea izapidetzea ezinezkoa den kasuetan, diru-laguntza emateko prozedura lehia bakunekoa izango da. Kasu horretan, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak jaso ahala banatuko dira fondoak, aurrekontu-kreditua agortu arte.

Norgehiagoka-araubideko diru-laguntzak emateko prozeduraren barruan, honako fase hauek bereizten dira: hasiera, instrukzioa, ebazpena eta jakinarazpena.

a) Hasiera

Diru-laguntzak emateko prozedura ofizios hasten da beti, organo eskudunak onartutako deialdi baten bidez. Deialdia BDNSn argitaratu beharko da, eta DLOren 23.2. artikuluan ezarritako edukia izango du nahitaez:

Interesdunen eskabideekin batera, arauan edo deialdian zehaztutako dokumentuak eta informazioa aurkeztuko dira, non eta ez dauden jada administrazio jardulearen edozein organoren esku (APAPELen 28. artikulua). Horretarako, udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.

Onuradunak eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak biltzeko (DLOren 23.3 artikulua).

Diru-laguntza erregulatzen duen araudiak onartu ahal izango du dokumentu jakin batzuk aurkeztearen ordezkatzaileren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen, adierazpen horretan jasotako datuen errealitatea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko eskatu beharko da, gehienez ere 15 eguneko epean.

Eskabideak deialdi-arauan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzentzeko eskatuko dio interesdunari.

b) Instrukzioa

Deialdian izendatzen den organoari dagokio diru-laguntzak emateko prozedura bideratzea.

Hauek izango dira instrukzio-jarduerak:

- 1) Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren edo diru-laguntza erregulatzen duten arauak eskatzen dituzten txostenak eskatzea, eta, hala badagokio, nahitaezkoak diren txostenak erabakigarriak direla adieraztea. Txostena emateko epea 10 egunekoa izango da, salbu eta instrukzio-organoak, eskatutako txostenaren edo prozeduraren beraren ezaugarriak kontuan hartuta, epe laburragoan edo luzeagoan ematea eskatzen badu. Azken kasu horretan, epea ezin izango da bi hilabetetik gorakoa izan.

Adierazitako epean berariazko lege-xedapen bidez nahitaezko eta erabakigarritzat edo, hala badagokio, lotesletzat kalifikatutako txostena egin ez bada, hurrengo izapideen epea eten ahal izango da.

- 2) Eskabideak ebaluatzea, diru-laguntza arautzen duen arauan edo, hala badagokio, deialdian ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunen arabera.

Eskabideak ebaluatu ondoren, oinarri arautzaileetan ezarritako kide anitzeko organoak txostena egin beharko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoitua, eta interesdunei deialdian ezarritako moduan jakinarazi beharko zaie. 10 eguneko epea emango da alegazioak aurkezteko.

Interesdunek aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Alegaziorik egon ez bada, behin-behineko ebazpen-proposamena behin betikoa bihurtuko da.

Behin-behineko eta behin betiko ebazpen-proposamenek ez dute inolako eskubiderik sortzen proposatutako onuradunaren alde, toki-administrazioaren aurrean, emakidea ebazpena jakinarazten ez zaion bitartean.

c) Ebazpena

Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, organo eskudunak prozedura ebatziko du.

Ebazpena arrazoitu egingo da, eta, diru-laguntza zein eskatzaileri ematen zaion adierazteaz gain, gainerako eskabideak ezetsi direla ere adieraziko da berariaz, hala badagokio.

Prozeduraren ebazpena ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan, salbu eta lege-mailako arau batek epe luzeagoa ezartzen badu edo Europar Batasuneko araudian hala aurreikusita badago. Epea dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera zenbatuko da, salbu eta deialdiak geroko data batera atzeratzen badu: administrazioaren isiltasunak ezespen-ondorioak izango ditu.

Ebazteko eskumena duen organoak, hala badagokio, instrukzio-organoak edo ebazteko eskumena duen organoaren goragoko organoak proposatuta, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea luzatzea erabaki dezake, behar bezala arrazoituta. Baina ezin da prozedura izapidetzeko ezarritako epea baino luzeagoa izan (sei hilabete diru-laguntzen arloan), APAPELen 23. artikulua arabera.

Nahitaezkoa da, diru-laguntza emateko erabakia hartu aurretik, udalaren esku-hartzea fiskalizatzea, osoko bilkurak onartutako modalitatearen arabera (osoa edo mugatua).

Diru-laguntzaren xedea eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea bada eta behin-behineko ebazpen-proposamenaren diru-laguntzaren zenbatekoa txikiagoa bada aurkeztutako eskabidean agertzen dena baino, onuradunari eskatu ahal izango zaio, oinarri arautzaileetan hala aurreikusi bada, eskabidea birformulatzeko, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzara egokitzeke.

Oinarri arautzaileek hala aurreikusten badute, laguntzak emateko ebazpenean eskabide guztien zerrenda ordenatu bat jaso ahal izango da. Hori egingo da betiere oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik onartu ez badira, deialdiko balorazio-irizpideen arabera bakoitzari emandako puntuazioa adierazita.

Kasu horretan, onuradunen batek diru-laguntzari uko egiten badio, diru-laguntza ematen duen organoak erabakiko du, diru-laguntzaren hurrengo eskatzaileari edo eskatzaileei ematea, beste deialdi bat egin beharrik gabe. Puntuazioaren arabera egingo da, onuradunen batek diru-laguntzari uko eginez gero, atzera botatako eskaeretako bati gutxienez erantzuteko nahikoa kreditu liberatu bada.

Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epe luzaezinean diru-laguntzaren proposamena eskura dezaten. Eskatzaileak proposamena onartu ondoren, administrazio-organoak emakida-egintza eman eta jakinarazi besterik ez du egingo.

3.9.- DIRU-LAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA

Honako diru-laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

- a) Toki-erakundeen aurrekontu orokorretan izenez aurreikusitakoak, hitzarmenetan eta diru-laguntza horiek erregulatzen dituen araudian jasotako baldintzetan. Diru-laguntza emateko erabakiak edo hitzarmenak honako hauek jaso beharko ditu:
 - 1. Diru-laguntzaren xede eta onuradun zehatzak.
 - 2. Gastua egozten zaion aurrekontu-kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa.
 - 3. Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna.
 - 4. Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak, ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, eta, hala badagokio, onuradunek aurkeztu beharko duten berme-araubidea.
 - 5. Onuradunak diru-laguntzaren helburua bete duela eta jasotako fondoak erabili dituela justifikatzeko epea eta modua.
- b) Toki-erakundeari lege-mailako arau batek ezarritako emakida edo zenbatekoa dutenak; horiek beren araudiaren arabera aplikatu beharreko emakida-prozedurari jarraituko diote.
 - Ematea ezartzen duen arauak berak arautuko ditu.
 - Emakida emate-akordio batean edo hitzarmen batean jasoko da, aplikatu beharreko araudiak hala aurreikusten duenean. Kasu horretan, diru-laguntza izendunetarako adierazitako alderdiak jaso beharko dira.
- c) Salbuespen gisa, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten beste diru-laguntza batzuk. edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten arrazoiak behar bezala egiaztatzen dituztenak.

Zuzeneko diru-laguntza emateko espedientean, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak, edo deialdi publikoa zailtzen duten beste arrazoi batzuk egiaztatu behar dira. Hala, udalaren diru-laguntzak jasotzen dituen auzo-, kultura- edo kirol-elkarte bakarra dagoen kasuetan, egoera horren berri emateak deialdi publikorik ez egitea justifikatuko luke. Gauza bera gertatuko litzateke auzo jakin bateko kultura- edo jai-jarduera jakin baterako diru-laguntza bada, edo ezaugarri jakin batzuk dituzten premiazko gizarte-premiei erantzuteko.

Ezin izango da zuzeneko emakida justifikatu, onuradun potentzial ugari egonda lehia sustatu daitekeen kasuetan, hala nola oztopo arkitektonikoak ezabatzeko laguntzen kasuan, edo biztanleriaren interes kolektiboak, orokorrak edo sektorialak babesteko udal eremuko elkarteei zuzendutakoetan.

Diru-laguntza izenduna fondo horiek jasotzen dituen onuradunaren jarduera bat sustatzeko teknika bat da. Jardueraren sustatzailea onuraduna da, ez administrazio emailea.

Onuradunaz gain, diru-laguntzaren xedea ere berariaz adierazi behar da.

Ez da nahikoa hartzaileen aurreikuspen orokor hutsa, baizik eta izenez identifikatzea,

Ezin izango da diru-laguntzarik eman deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagokoak badira.

Hitzarmenak izango dira toki-erakundearen aurrekontuetan izenez aurreikusitako diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Prozedura honen bidez ematen diren diru-laguntzak ere nahitaez argitaratu behar dira BDNSren bidez.

3.10.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK AZPIKONTRATATZEA

Onuradunak jarduera osorik edo zati batean azpikontratatu ahal izango du, diru-laguntza arautzen duen araudiak hala aurreikusten duenean bakarrik.

Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen diruz lagundutako jarduerak ez du gaindituko diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako ehunekoa. Aurreikuspen hori agertzen ez bada, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 50 gainditzen ez duen ehunekora arte azpikontratatu ahal izango du onuradunak.

Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratua idatziz egitea.
- b) Diru-laguntza eman duen erakundeak aldeztu aurretik baimentzea kontratua egitea, oinarri arautzaileetan zehazten den moduan.

Kontratistak onuradunaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta. Onuradunak bere gain hartuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean eta bere ardura izango da hirugarrenekin itundutako diruz lagundutako jarduera gauzatzean diru-laguntza erregulatzen duen araudian ezartzen diren mugak errespetatzea, diru-laguntzaren gastuei eta zenbatekoari dagokienez.

3.11.- DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA

Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, deklarazioaren erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Diru-laguntza publikoen oinarri arautzaileetan zehaztutako dira justifikazio-kontua egiteko modua eta kontuak emateko epea..

Oinarri arautzaileen aurreikuspenik ezean, diru-laguntzarekin finantzatu diren jardueren eta horien kostuaren aitorpena sartu beharko da kontuan, egindako gastu bakoitza banakatuta, eta, gehienez ere, jarduera egiteko epea amaitu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

Gastuak fakturen eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuen bidez egiaztatuko dira.

Jarduerak, diru-laguntzarekin ez ezik, fondo propioekin edo beste diru-laguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da fondo horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretarako aplikazioa.

Jasotzaileak egoera jakin bat betetzen duela kontuan hartuta ematen diren diru-laguntzak justifikatzeko, zuzenbidean onargarri den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da egoera hori, diru-laguntza eman aurretik, hargatik eragotzi gabe egoera hori dagoela egiaztatzeko ezar daitezkeen kontrolak.

Diru-laguntza justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada, itzuli egin beharko da.

Toki-erakundeak, deialdian, hitzarmenean edo ordenantzan, diru-laguntzak justifikatzeko hainbat modalitate edo kontu ezar ditzake, batez ere diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera. Ondorio horietarako, erreferentziatzen har daitezke uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 69. artikuluan (ez oinarritzkoa) jasotako modalitateak: justifikazio-kontua (gastu-egiaztatagiriak aurkeztuta, auditorearen txostena eta sinplifikatua), moduluen araberrako egiaztatpena eta kontabilitateko egoera-orrien aurkezpena.

3.12.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta diru-laguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten direnak. Epe zehatzik ezarri ez bada, diru-laguntza eman den urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ezin izango da, inola ere, merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Diru-laguntzen oinarri arautzaileetan berariaz kontrakorik xedatu ezean, egindako gastutzat hartuko da diru-laguntza arautzen duen araudiak zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena.

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak SPKLn kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gaitzen dituenean, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik. Salbuetsita egongo da ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago horiek egin, eman edo hornitzen dituen behar adina erakunderik, edo gastua diru-laguntza eman aurretik egin ez bada.

Ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, DLOren 31. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan ezarritako arauak beteko dira.

Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko gastu finantzarioak, aholkularitza juridikoko edo finantzarioko gastuak, notariotza- eta erregistro-gastuak eta peritu-gastuak eta administrazio-gastu espezifikoak diruz laguntzeko modukoak izango dira. Kasu horretan, diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta egon eta jarduera behar bezala prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak izan beharko dira, betiere oinarri arautzaileetan hala aurreikusten bada.

Zergak diruz lagun daitezkeen gastuak dira, baldin eta diru-laguntzaren onuradunak benetan ordaintzen baditu. Zeharkako zergak ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

3.13.- AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA

Gastua onartzeko eta ordainketak egiteko prozedura eta ordainketen atxikipena DLOren 34. eta 35. artikuluetan arautzen dira, hurrenez hurren.

a) Gastua eta ordainketa onartzeko prozedura

Diru-laguntzaren deialdia egin edo diru-laguntza zuzenean eman aurretik, gastua onartu beharko da, toki-erakundearen aurrekontuei buruzko foru-araudiaren arabera.

Diru-laguntza ordaindu aurretik, onuradunak justifikatu egin beharko du diru-laguntzaren xede den jardura, proiektua, helburua edo jokabidea gauzatu dela.

Konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, betiere diru-laguntza erregulatzen duen araudian berariaz aurreikusten badira.

Diru-laguntza ezin izango da ordaindu onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean (DLOren Erregelamenduaren 18. artikulutik 26. artikulura) edo itzulketa-ebazpen baten bidez zorduna ez den bitartean.

a) Ordainketak atxikitzea

Behin itzultzeko prozedura hastea erabaki ondoren, kautelazko neurri gisa, organo emaileak, ebazpen arrazoitu bidez, onuradunari edo erakunde laguntzaileari ordaintzeke dauden zenbatekoen ordainketa-aginduak etetea erabaki dezake. Hala ere, ordura arte sortutako berandutze-interesekin ezingo du inola ere gainditu itzultzeko espedientea hasteko proposamenak edo ebazpenak finkatzen duen zenbatekoa.

3.14.- DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

Diru-laguntza emateko ebazpena deuseztatzeko edo baliogabetzeko deklarazio judiziala edo administratiboa egiten bada, DLOren 36.1 artikuluan aurreikusitako arrazoren batengatik, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

Era berean, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, eta DLOren 37. artikuluan aurreikusitako berandutze-interesak eskatuko dira.

Administrazioak itzulketa aitortzeko edo likidatzeko duen eskubidea lau urtera preskribatuko da.

Itzultzeko betebeharra, hala badagokio, eska daitezkeen zehapenekiko independentea izango da.

Diru-laguntza ematen duen organoak izango du eskumena onuradunari edo erakunde laguntzaileari diru-laguntzak itzul ditzala eskatzeko, salbu eta Europar Batasunak hala erabakitzen badu; kasu horretan, errekurtsioa kudeatzea dagokion organoa izango da.

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunaren erabakiz, bai bere ekimenez, bai goragoko agindu baten ondorioz, beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.

Itzultzeko prozeduraren ebazpena deliberatzeko eta jakinarazteko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da, prozedura abiatzeko erabakia hartzen den egunetik zenbatzen hasita. Ebazteko epea igarotzen bada berariazko erabakirik jakinarazi gabe, prozedura iraungi egingo da.

3.15.- DIRU-LAGUNTZEN ARLOKO ARAU HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK

Administrazioko arau-haustek DLOren 52. artikulutik 58.era bitartekoetan jasotzen dira, eta administrazio-zehapenak DLOren 59. artikulutik 69.era bitartekoetan.

Arau-haustek arinak (56. artikulua), larriak (57. artikulua) eta oso larriak (58. artikulua) izan daitezke, eta 61., 62. eta 63. artikuluetan jasotako zehapenak dakartzate, hurrenez hurren.

Zehapenak diruzkoak eta ez diruzkoak izan daitezke (DLOren 59. artikulua)

Toki-erakundeei zehapenak ezartzeko eskumena toki-araubidearen legerian eginkizun horiek esleituta dituzten gobernu-organoei dagokie.